

Manex Erdozaintzi-Etxart

Gauaren atzekaldean

Elkar
1982

Asteguna. Arratsaldeko seiak: hirietan lana bukatzen den tenorea. Jendeak eta jendeak... Orotarik: gizon eta emazte, adinetako eta gazte. Hots, orotarik dabila metrorateko lurpe-bideetan zehar. Parisen, lur azalean eta lurpean jende ainitz dabila, kurutzatzen eta saheskatzen da. Bakoitza dihoa bere bidetik: lanetik etxera. Eta nonbait kokatuko da gauerako. Azkenean, bakarrik edo lagun batekin, loan ahantziko ditu bere gorputzaren mugimendu nagiak.

Montparnasse. Hemen ere jendea dabila, murriz. Metroaren haiduru, xutik edo jarririk. Besteak beste: lau gizon aulki batean jarriak. Lauak doi bat gazte. Bat bere bekillen puntan burua ahuspe. Beste bi, ixil-ixila, soa galdua, jendartean nahasia. Laugarrena xutitzen da: sakolatik arno botoila bat ateratzen du jadanik erdikala hustua; beste hurrupako bat azkarra egiten dio, eta berriz ttottotzen da. Holakoei jendeak ez die kasu handirik egiten. Bakoitzak bere espazioa dueno eta dukeeno. Bakoitza bere bidetik joan daitekeeno.

Metroan sartu ginen. Tuta luzea eta ateak hetsi ziren automatikoki. Metroak erematen gintuen.

Vavin. Batzu jautsi ziren, beste batzu igan. Tuta hasi zen eta, azken mementoan, punpez gazte bat sartu zen. Ateak hetsi ziren automatikoki. Metroa abiatu zen.

Gazte bat zen neurri ederrekoa, koloreetan beltza. Bizkarrez metro paretari finkatu zen. Hasi zen gitarra jotzen. Eztiki bota zituen lehen notak eta erritmoak. Begiak hetsirik bere munduaren bila zihoan. Bide iluntsu batean bezala. Batbatean burua daldarikatu zuen eta bizpahirur nota azkar bota zituen emozio handi baten neurrikoak. Bere mundua topatzean, kantuz hasi zen. Jendeak bereari segitu zuen: ixilik egoteari, xuingoma maxtakatzeari, kaseta irakurtzeari, ondoko laguna tinkatzeari... Gazteak kantatu zuen Ipar-Ameriketako kantu bat: eztiki edo azkar, bere mundu barrutik ari zen hitzak eta melodiak ateratzen eta barreiatzen. Amerikanoa ez genuen ulertzen. Bixi-bizia, berdin arin-arina, zerabiltzan erhiak gitarra kordak zimikatzen. Kantuz zihoan bere munduko mendi eta itsasoetan, ekaitz eta eguzkietan. Batzutan irri bir-bira batek alaitzen zion aurpegia, begiak larri-larria itzulikatzen zituela gorputz osoaren dantzaldian. Beste batzutan, kexua azkar finkatzen zitzaion kopeta zimurtuan, ezpain hantuetan, gorputz mugimendu kolpatuetan. Hitzak eta melodia elkarri lotuak zerabiltzan gorputzaren eta gitarraren erritmo betean.

Ixildu zen gaztea. Gazte beltza. Beltz amerikanoa. Burukoa hartu zuen eskuan eta jendartean menturatu zen eskelari. Irri lasai batez eskertu gintuen gure hogoi sosekoa biltzean: desberdinak izanagatik, gure munduak han nonbait topatu ziren.

Metroa bere bidean zihoan normalki. Eta jendeak ez zuen ametsik. Bakarrik gorputzean egunaren pizua. Eta ahal bezain laster etxeratzea. Askorentzat bide luze baten puntan: immeubla anonimoen estaja batean apartamendutxo bat, edo, gain zoko batean, gelatxo bat... Bata bestearen ondotik igaten diren eskalierrak, zangoak herrestan. Jendeak ez zuen kanturik. Hiri handi batean galtzen diren herriak: gure munduak. Tresnak eta lanak bortxatu gorputzok bakarrik: dilindan. Mekanikeria ongi oliostatzen diote eta metroa ibilki da bringo, egunaz eta gauaz. Jendeak ahantzi du sentimendua: ez da harritu beltz amerikanoaren kantua entzutean. Metroa joaki da zalukara. Jendea dabila: bideetan galdu ditu soa eta mintzoa. Bihar goizean lanak berriz eremanen du eta ariko da orenak eta orenak sentimenduak ahanzten, hitzak galtzen. Lanak hartuko diozka jeinuak eta indarrak: utziko dio gorputzean bakarrik enegua. Lanak xurgatuko dio, egunero, bizia: urtetik urtera utziko dio gorputzean bakarrik higadura. Jendeak ahantzi du harridura.

Hogoita hamar bat urte zukeen. Ile beltza harro-harroa soinburuetaraino. Aurpegi argala, kolorea zurpail: bere begi beltzek ematen zioten dirdira gaitza. Ba ote zekien? Bere haurra, sei-zazpi urteko muttiko bat, sahetsean ari zitzaion ahapetik solasean. Emazteak ere zerbait erraten zion noiztenka eta haurra alegeraki mugitzen zitzaion aulkian, zangoak airean. So herabe bat zerabilen inguruan emazteak, bakartasuna eta beldurra dakarzkiena. Alta jendearen berotasuna eta izerdia ez zen falta. Baina beharba bakoitzak zer duen gogoan eta bihotzean ez jakite horrek sortzen duen lazduraren gatik. Emazteak haurra tinkatu zuen bere kontra, amultsuki, segurantzia baten beharretan izan balitz bezala. Eta haurra ixildu zen amaren sahetsean. Zure so herabea gugandik ihes joatean, haurrak beretu zuen.

Metroa baratzean, bazen jende aldatze mugidura handia: batzu jautsi bezain fite besteak pusaka sar, ardiak kortxilan sar-jalgitzen diren bezalatsu. Ateak hetsi-eta, doi bat laxatzen ere zen gorputzen arteko tinkadura eta bakoitzak haztamuka, pollikiño, aurkitzen ere zuen zangoak non hobeki finka besteenak lehertu gabe. Arteak eta pasaiak hain hertsu izanagatik, bakoitzak, xutik edo jarririk, emeki-emeki nolazpait lotzen eta kokatzen zituen bere menbroak luzaran edo bilduan. Behar zen baitezpada doi bat adrezia. Egia erran jendea ohitua ere zen holako tenoretan metaka ibiltzen. Ez zen jestuen eta mugimenduen grazia eskatzen. Xoilki doi bat kasu egitea eskuz besteak sobera kilikatu gabe, edo zangoz sobera lehertu gabe, edo ipurdiz sobera tinkatu gabe. Jenagarriena zitekeen aurpegien hurbildura hori, besapeko izerdi urrin bafada... Zernahi gisaz bakoitzak bazuen bere egunaz aski eta bere sentsuak zekarzkien maltso. Arren askiko zen ez arras lazoki ibiltzea, doi bat kasu egitea gerta ziteken minbera gune bat ez ziztatzeko ustegabetarik. Igan, jautsi eta joan ahalik hobekiena. Metroko krisketak automatikoki hesten dira.

Beharba nahiko nuen mintzatu. Norbait kurutzatu. Zerbait erran. Norbaiti. Espazioak denenak eta nihorenak diren gune hauetan, nahiko hindutan elekatu, beltz

amerikanoa. Nahiko neatan erran neure munduko ikara. Nahiko nizkeatan kantatu neure herriko itsasoak, mendiak, eguzkiak. Denenak eta nihorenak diren eremu hauetan hire eta ene kantuak, ixiltasunak hautsi dizkiguk itsasoa harrokak hausten duen bezala. Zure ile beltzen harrodura nahiko nuen sentitu ahurrean. Eta zure so herabea erori da haurraren bihotzean. Eta azkenean, besteak bezala desegiten naiz neure amets nahasiekin. Ixiltzea eskatua zait. Besterik ez. Ixiltzea neure munduko ibarretan, oihanetan. Hire kantuaren melodia erraietan kokatzen zaitalarik. Zure begi beltzen dirdirak bihotza ziztatzen didalarik. Denenak eta nihorenak diren toki hauetan, nihor ez bagine bezala ibiltzea eskatua zaigu. Hi eta ni, zu eta ni: geure mundurik gabe, geure kanturik gabe, geure solasik gabe, deseginik gabiltzanok. Denek gordetzen ditugun gutziak, nahiko nituen oihukatu: hire larruaren beltza, zure ileen harrodura. Denek ixiltzen ditugun kexuak, nahiko nituen agertu: hire melodiaren drama, zure soaren herabea. Izenik gabeko izate hontatik kraskatzeko. Ibilaldi berdindu hontatik ateratzeko. Ene abotsaren soinuak hautemateko hire ezpain hantuen ikaran, zure aurpegi zurpailaren irrian. Begiak hesten ditut ezin jasanezko gertakari baten aurrean bezala. Ohildu nahiz hire kantuak harrotu munduak. Haizatu nahiz gure begiek arrapiztu sentimenduak. Begiak irekitzen ditut soa urrunago heltzeko, berdintasunean galtzeko, so anonimoen zabalean. Hortzak tinkatu nintuen neure odolaren kexua itotzeko. Hirur aldiz bularrak airez hanpatu nintuen gorputza lasaitzeko. Memento bat zela pentsatu nuen. Pasaia gaixto bat. Jendarteko memento batetako tinkadura. Biziak ihardokitzen zuela. Besterik ere bazela. Beste mementoak. Beste espazioak. Bakoitzaren munduak. Ez bada arras egia ere, hobe zela hola pentsatzea: ez sofritzeko; ez sofriarazteko.

Haurrak ez zekien zer pasa zen amaren burutik. Ez zekien ere zer minberatu zen amaren bihotzean. Eta tinki-tinkatu zen amaren besapean. Mintzatzetik ixildu zen haurra. Bere begi ttipiak erne, haurrak begiratzen zuen itzuli-inguruetan. Ez zekien zer pasa zen jende handi horien buruan eta zerk hoin serioz zaintzen zituen. Ixil-ixila haurra ere zegoen amaren sahetsean, harritua. Amaren altzotik zetorkion segurantzia lasai baten berotasuna.

Denfert-Rochereau: Jende pila jautsi zen eta zalapartaka barreiatu lurpeko bide-hertzeetan zehar.

Pariseko lur-sabela: dena bide, dena pasaia, dena estazio, dena argidura, dena metro. Jende oste irentsiak, harat-honat. Jende broia bihurgune, eskalier, sarjalgieta. Denek berdinduak, zatikatuak, bereziak, handiak eta xumeak, nahas-mahas. Mementoko. Eta gero, bakoitza bere alde hiri handian, karririkaz-karririka barreiatua, joana, gordea. Biharamuna arte. Eta berriz Pariseko lur-sabelaren atzartze-mugimenduak: metro burrunba urrun, hurbil, han nonbait; jendeen urratsak, tzafla-tzafla, lasterkak, eztulak, solasak; jendeen hats kolpeak. Metroaren etorrera, baratzea, abiatzea estazioz-estazio. Jende pila. Nik ez nekien zerk bultatzen ninduen, zerk eramaten ninduen. Zangoak asalduak senditzen nituen eta kasik airean

nindoan: besteen atzetik, ondotik, saheska, trebeska, amorratu bat irudi, besteen artetik zeharka. Burtxoratua. Jendeekin eramana. Jendeekin joana. Sar-jalgi bat. Joan-etorri bat. Desplazamendu baten doia. Eta gero, bakoitza bere-ber: nor bere lanean, nor bere bulegoan, nor bere entreprizan, nor bere plazerretan, nor bere etsipenetan. Egunaz nonbait kokatu behar delakoan. Desplazamendu batentzat behar den denbora. Batetik bestera, bakoitza bere hartala, zalapartaka, hatsantua, nonbait gordea litekeen etsai baten aztaparretatik eskapatu nahi bagenu bezala. Eguna nonbait malsoki iragan behar delakoan. Bakoitzak ba ote daki zerk horrela darabilen?

Beharba soinulari horrek zuen arrazoin. Parrean iragan nintzaionean konturatu nintzen itsua zela. Sortzez ala errekontruz? Funtsean ez du inporta. Bere ttotogian jarria, ari zen ari akordeona jotzen. Bere musika goibela zihoan alde guzietara eta hunki ere ninduen bihotzean. Hala da, zirrara samin bat sentitu nuen itsuagandik urruntzean. Txapelean ez nion deus utzi. Ximiko bat bihotzean: ez dakit hea neure burua hobendun sentitzen nuenetz ala xoilki tristezia astun bat? Ez nekike. Lurrazpi anonimo honi giza-bizitasun izpi bat ematen zion itsu soinulariak. Zekarzkion: lanoak, zuhaidiak eta txoriak; eta ere mundu ahantzi batean gorderik dagozen sentimendu bakartiak. Bere musikarekin zebilen itsu soinularia, egunak eta gauak. Ez zirudien aspertua. Halako ironia bir-bira bat ezpain inguruetan, ikusiz bere irudimenean dantzan, ondotik eta aurretik, iheska edo goxoan, pasatzen zitzaizkion jendeen molde ergelak. Bere musikarekin perekatzen, karesatzen eta mintzatzen balitu bezala berak zekien sasu gibelean edo karrika izkin batean, izarrak lekuko. Bere musikaz liluraten balitu bezala berak zekizkien hitzekin eta jestuekin etenunerik ez duten gauetan. Bere gorputz bilduan mundu borobil bat osatzen bide zuen, denbora eta espazioa gainditzen dituen. Atzekalde edo aitzinalde gabeko ikusmen irekia: alde guzietatik su eta argi. Atzokoaren eta gaurkoaren entzule ernea: bizitzaren intziri minbera iraunkorra. Hitzen fluxa urratuz elea sakontzen ikasi zuena. Edergailu eta, girgileria guziak bideko errautsean nahasi dituen. Xoilki, erhien puntatik bere mundua musikatzeko. Itsu soinulariak, xoratua zirudien bere musika melodien munduan!

Eskalierraren puntan, eskuin bihurtu aitzin, alimaleko irrintzin bat atera nuen: luze eta ozen. Jendea harrituta gelditzen aditu nuen gibelaxago, halako nahaskeria batean elkar koskatzen, lanjer handi batek ustegabea harrapatu izan balu bezala. Ele mar-marrak ere hauteman nituen batetik bestera hedatzen: norbait hedailo erori ote zenetz? Edo kolpe gaixto batez norbait eraili zutenetz? Aladere burutik zernahi pasatzen baita holakoetan. Eta nor nori fida lur-sabeleko hertze koropiloetan?

Txomin eta biak, deusik izan ez balitz bezala bidean zintzo joaki, pareta izkin batean itzali ginen.

Geure gorputzaren sumindura jendartean gabiltzalarik: alde guzietatik

inguratua, tinkatua, poxolatua. Hiria, sasu handi bat gertatzen zaigu, dena lahar eta dena zizta zorrotz. Denak hor agitzen gara sasira baztertuak, laharretara sakatuak. Batez ere jende xehea, jende arrunta, jende langilea, enpresa mota guzietako jende menekoa, jende zapaldua. Ez dakite, ez dakigu besoak eta zangoak mozturik gabiltzala jostatzeko uzten dizkiguten oren laburretan, hatsa hartzeko doia, ilusio baten doia. Ez dakite, ez dakigu gure besoek eta gure zangoek lanerako xoilki balio dutela. Eta ez bizitzarako, ilusio luze baten barruan, etengabeko amets baten pilpiran. Eta, lanetik kanpo, gure besoek ez dakitela besarkatzen, gure zangoek ez dakitela dantzatzen. Handien eta dirudunen meneko direla gure besoak eta gure zangoak. Batez ere jende arruntak garela; jende desterratuak garela, zapaltzaileen meneko eta tratuetarako. Gure nigarrek deus ez dutela balio dirudunentzat; gure irriak ez direla hunkigarri handi-mandientzat. Ez dakite, ez dakigu, eta gure gorputzaren sumindura betikoa dela, sortzetik horrelakoa dela, uste dugu. Sasian pulunpatuak eta laharretan kokatuak gabiltzanok, horrelakoak eta besterik ez garela, sinesten ere dugu ondikotz! Eta sasietan etsitzen gara.

Hiri-sasitik bota nuen irrintzina zihoan oihartzun etengabea, mehar eta sendo. Aterako ginela, goiz edo berant, ilunpe etsigarri hontatik. Geure bizkar konkortua zuzenduko genuela elkarri behatzeko. Geure besoak kurutzatuko genituela elkar besarkatzeko. Geure zangoak laxatuko genituela elkarrekin dantzatzeko. Holako pentsamenduetan nindabilen. Nere herriaren kexaduraz inarrosia. Gugan ahantzia izan nahi ez duen mundu kokatua! Urruneko leihorretan itsasoak busti eremu gazia! Lurraren erraietan zihoan gutizia orenen oihua, samin eta astun, itsasoaren marrumekin nahasteraino. Bizitza orenen marruma kexua!

Rue de l'Université kalean sartu gineneko iluna zen. Abendoko egun hits bat egina zuen. Lanoa egun guzian ez zen denmendrenik altxatu. Eguna kasik ilunpean pasatu zen. Eta gainera zer hotza! Zalukara gindoazen metrotik aterata. Kurutzatzen genituen jendeek ere ez zuketan kanpoan abusatzeko gutizia handirik: beren estalgi handian tinkatuak, eskuak sakolan, firrindan zoazen, larrazkenean hosto eihartuak bezala. Usaiako argiak piztuak izanikan ere, Parisek galdua zuen bestorduzko berotasuna. Zenbait egun gorabehera, negua zen-eta... Egia erran, ostatuek bazuten holako egunetan gaitzeko arrakasta. Behartua edo ez, irudi luke jendea ez daitekeela aurrera joan, hor pasaiatxo bat edo beste egin gabe: aperitifa bat edo kafetxo bat hurrupa, lagun bat edo besterekin bi solas, eta jo aintzina!

Aizinant izanez nihauri ere frango gustatzen zait ostatu batean sartzea. Mahai bat bilatzen dut xoko huts batean. Kafe bat manatzen. Zigarreta bat pizten. Xorutzen naiz jendeari begira: orotarik itzulikatzen baita aladere ostatu batean. Adinetako jende, gizon eta emazte, haur eta gante, zurpail, gorri, beltz, kolore guzietakoak ikusten baitira. Eta orotarik ere entzuten baita, musika eta joko-tresna arrabots artean, hizkuntza desberdinak, aktzento lilluragarriak eta nazkagarriak. Gauza orotaz ere mintzatzen baita, arinki, arralleriaz, ustegabez, ezazolki; gauza orotaz eta deusetaz mintzatzen ahal baita: hor aipatzen den politikak ez baitu ondoriorik; hor erabiltzen diren amodio solasek ez baitute segida luzerik; hor egiten diren ametsak bertan galtzen baitira erretzen diren zigarreta megoetan edo edaten diren alkoola kolpuetan. Beharba hor ahanzten bide da, memento labur batean, bizitzeak dakarren seriosasuna.

Behin, beste bi lagunekin jaun bat ikusi nuen ostatuan sartzen. Nik ez dakit zer edan zuten. Baina, oren baten buruan, pottoka ederra zekarten. Beste behin, emazteño bat ikusi nuen, hola-hola ostatu batean, goizeko hamarretan: gaixoa, istant batez bizpahirur birra edan zituen. Eta sartu bezein triste atera zer kanpora. Nik ez dakit zer ahantzi nahi den edo zer bilatu nahi den ostatu batean sartzean.

Gaur ere ostatu guziak bete-beteak ziren. Baina, ez nuen pasaiatxo bat egiteko gogorik.

Sakolak mia-mia. Zigarretarik ez nuen. Txomin ohartu zer eta bere paketa atera zuen. Zigarreta piztu nuen. Ohartu nintzen eskuak daldarika ari zaizkidala. Tirako luze bat egin nion zigarretari. Kea senditu nuen zintzurrean behera bularretaraino. Pausa atsegingarri bat sentitu nuen gorputzean.

195-garrenera heltzean izialdurak hartu ninduen. Izerdi arin bat jautsi zitzaidan garkotik hasi bizkarrean behera. Zigarreta bukatzean gustu kirats bat gelditu zitzaidan ahoan. Azpi-zangoak ere ez nintuen halako fleitean.

Txominek ez zuen elerik. Burua apal zihoan karrikan. Eta ez nintzen menturatu

ixiltasun hori haustera. Badakizu jende arrotz batekin gertatzen dena? Nahi duzu eleka hasi eta ez jakin nola. Beharrik «egun on» edo «agur», eskua luzatuz, erraten ahal baldin bada, gogoak hor aurkitzen bide du solas baten abiapena. Soa ere badabila, herabe, inguruka lagun arrotzaren soaren bila. Batzutan, elkar-hurbiltze honen ondotik, hitzak bata bestearen ondotik kokatuz, solas batzu atrebitzen dira: denbora, nongotarra, zer ofizio eta halako..., aski urruneko gaiak karrakatzen eta aipatzen dira, musika arin baten moduan, elkar ez iziarazteko eta ohiltzeko bederen. Ainitzetan aldiz, lagunaren soa hantxetan-harat ihes doalarik, laster ohartzen zara ez duela biziki balio segitzea. Eta hortan aski.

Txominekin aspaldiko adiskideak ginen. Aspaldiko ezagunak eta bagenekien elkarren berri. Gaur ixiltasun berdinez hartuak ginen. Kolpe handi batek berdin hunkiak, nahigabe izigarri bat barruan, gindoazen, goibel eta kezkatu. Ala metroan, ala karrikan, jendartean ibiltzeak dakarren kilika hura ere galdua genuen hainbestetaraino baiginen, gogo eta gorputz, gertakari berean amilduak.

Txominek eztul txar bat bota zuen.

Immeublako ate handia pusa genuen. Xuxen joan ginen konzierja mintzatzera.

«Migelen gelarako giltza nahi genuke.»

Beltzuri batekin so egin zigun. Ate artetik sukaldea ageri zen. Barre ttipi bat. Gauzak ordrean. Bazterrak garbi. Eskuineko sahetsean mazout berogia bat. Ondoan, kadera gainean gatu eder bat, xuri eta beltza. So kokin bat bota zigun mininak, burua doi-doi altxatuz. Ez zen gehiagokorik mugitu eta berriz loari eman zen.

Lehen aldia zen konzierja topatzen genuela. Bestorduz, Txomin edo ni, xuxen joaten ginen 7-ren estajan Migelek hirur urte hauetan luatua zuen gelara.

Berrogoita hamabost bat urte zituzkeen aurrean genuen emazteki honek. Ileak xuri, tuntula handi batean bilduak. Zituen begi urdinak zituzkeen, bizitzeak oraino utzi ziozkan edergailu bakarrak! Gorputzez baitzen lodi eta bi zango meharren gainean nolazpait ibilki. Lili buketa urentu zuen eta pausatu ezkerreko aldean muble ttipi baten gainean. Leihotik behako bat bota zuen kanpora.

«Nor zarete?» galdetu zigun boz iddor batez.

Txomin menturatu zen ihardestera: «Euh... Migelen lagun batzu... adiskideak gara...»

«Ah!» ezeptiko bat bota zuen emazteak.

Zintzurrari karrakaldi bat eman ondoan, segitu nuen: «Ba... badakizu... heldu gara... Migelen adiskideak gara... eta haren puskak nahi genuzke bildu...»

Uste nuen fueratzen gintuela. So egin zigun, so egin, gain behera eta petik gora. Bizkitartean ez genuen ez ohoin itxurarik!

Funtsean beti hola da hirietan, karrikan, bilgune publikoetan, immeubla inguruetan batez ere: mesfidantxak zaintzen ditu bazterrak. Karrikan iragaten direnak, immeubla ateetatik sar-jalgitzen direnak, bilgune publikoetan kurutzatzen direnak... nonbaitik norbaiten soak segitzen ditu aski urrun itzali artino. Denak gara nonbait eta noizbait, epe labur edo luze batentzat, norbaiten etsai, ohoin, jende bitxi..., kasu egin behar zaiona, begien bistatik hola utzi behar ez dena.

Emaztea ttottotu zen «plauf» kadera batean, animaleko lan baten ondotik indarrak galduak balitu bezala. Ixil une bat joan zen. Bi besoak kurutzaturik so egiten zigun. Izialdurak azkarkiago hartu ninduen. Izerdiak lodiagotu zitzaizkidan errainetan gaindi ixurtzeraino. Txominek zigarreta bat eskaini zidan. Berak ere beste bat hartu zuen. Hasi ginen pipatzen.

Mintzatzera atrebitu nintzen: «Migelek ez zuen gauza handirik... puskila batzu... baina beti erraten zigun zerbait agitzen baldin bazitzaion... eritzen baldin bazen edo... zituen puskak biltzea...»

«Mutiko ona zitekeen... Migel... Nik, ez dut biziki ezagutu... mutiko kementsua eta ixila... mutiko ezta zitekeen...» erran zuen emazteak.

Argiduraz bete zitzaizkion bere begi urdinak emazteari. Bizitzaren aztaparrak urratu sarraskiak ere jabaldu zitzaizkion pollikiño aurpegian eta halako berotasun bat atera zitzaion ezpainetan.

«Goiz hartan, estajak garbitzera nindoala, intziri mehe bat entzun nuen, gorde nahi den intziri ahul bat...» segitu zuen emazteak. «Bulta bat eman nuen ezin jakin nondik zetorren... Jende intziri bat... Azkenean, aski inguruka ibili ondoan, Migelen ganbaratik zetorrela konturatu nintzen. Jautsi nintzen tarrapatan bere gelako gakoaren bila... Gaixo, Migel, bazenekite, arrunt tristeki atzeman nuen gure mutikoa, dena sukar eta izerdi... Baina, Migel, zer gertatu zaizu?»

«Begiak ireki zituen eta so egin zidan.»

— Zu zara, Anjela?

— Baina... Zer gertatzen zaizu? Ez zara batere ontsa... ?

— Ez dakit, Anjela... Egun hauetan harat-honat ibilia naiz ba ibilia, lan eta bilkura, jo-honat-jo-harat,... eta ez dakit zerk hartu nauen, ez naiz trenpuan, Anjela, ez dakit nongo hotzak harrapatu nauen hezurretaraino..., ez dakit nolako gaitzak alde guzietatik tinkatzen nauen...

— Ez duzu estatu hortan egon behar, Migel, medikua ekararaziko dut.

— Ba, Anjela, uste baduzu hola hobeki dela...

«Ohea plantan ezarri nion, mihiseak eta estalgiak bildurik, eta medikuari telefonatu nion lehenbailehen etor zedin. Etorri zen ba laster eta lagundu nuen ganbarala. Eta haztatu zuen Migel. Erabaki zuen, medikuak, anbulantzari deitzea. Anbulantzari telefonatu nion eta anbulantza etorri zen eta anbulantzak Migel eraman zuen nik ez dakit zein ospitaletara... Eta medikua ere joan zen. Medikua bere autoan joan zuzun... Eta gero Migelen berri, ez nuen jakin. Ez nekien zein ospitaletara eraman zuten. Eta Migel ez zen etortzen. Ez nuen geroko berririk... Eta gero... oh ez dakit zein egun zen... gero neskatoxa bat pasatu zuzun... neskato bat nigarra begian... Nik ez dakit nor zen. Ez zidan bere izena eman. Baina, neskatoxak erran zidan Migel hil izan zela. Eta, nigarrez, gaixoa, joan zen. Harritu nintzen, badakizu, harritu. Ezin sinetsia nuen Migel hila zela... Neskatoxa hura, nik ez dakit nor zen, baina hura ere ongi penatua zen... Migel hila izaten ahal zela, ezin sinetsia nuen... Zer, istant batez, jik eta jak, mutiko bat, gazte gordina, hola joaten ahal dela? Ezin da ba onartua...»

Hori guzia kondatzean, begiak busti zitzaizkion Anjelari. Mokanes higatu bat atera zuen ahurrean sakolatik. Bere begi urdinak xukatu zituen diskretuki.

«Izigarri duzu ba hola joatea... hoin fite joatea, betikotz itzaltzea...» atera zitzaidan ahotik.

Anjela xutitu zen. Murru paretan, eskuin aldean, taula baten gainean dilindan ziren gakoetarik bat hartu zuen eta eman zidan. Eta gu urruntzean: «Gero ekar he, eni, gako hori...»

Zure begi urdinak, Anjela, nerekin daramazkit. Beharba segitu nahiko zenuen zeure solasa gurekin. Gaua izarretan delarik, zer da ba urrun eta gibelago? Zerua bere zabalean miresten dudalarik, izarren dirdirekin begiak dantzan hasten zaizkidalarik, eta neure buru ttipian mila galdetza sortzen eta burrukan ari zaizkidalarik: zer da ba hor gaindi gorderik? Ulertu nahian, zer da ba eskapatzen zaidana? Eta, Anjela, ez baitakit zenbat urte dituzun, zure begi urdinak nerekin daramazkit eta zure biziko nondik noradinokoa imajinatzen nabila. Zure begi urdinak baino gibelago eta urrunago, zure mundua ezagutu nahiz, eta ezina delakoan, neure mundua zurean bilduz ari naiz imajinatzen. Gorputza arin eta

izpiritua erne zenuelarik, bizitzeak bazukeen gustu eta atsegin. Gauak eta egunak trebeskatzen zenituelarik, akidurarik gabe, lanean, jostetan, lagunekin irriz eta dantzan, amets batetik bestera, bizitzeak bazukeen bere pilpira. Ez dakit zenbat urte dituzun, Anjela, baina oixtion, Migel aipatzean, zure ezpainen bazuten bizitasun eta zure hitzek zekarten zure bizitzako ezpal bat. Nahiko nuen jakin nongo uretan erori zen enborra eta zergatik? Baina zure ezpainak baratu ziren, hitzak eta solasak egitetik. Zure begi urdinak, nigar batek busti zituen. Eta gakoa eman didazu. Zure begi bustietan daramat imajinatzen ari naizen zure mundu zauritua.

«Gaixo emaztea» erran zidan Txominek. «Horrek ere badikek jasan ahala...»

«Ikusi duka nola begiak busti zaizkion? Habil to hi jakitera jendek zenbat sofritzen duten? Eta, hortxet bizi, animaleko hiri hontan, konzierja bezala, immeubla hontako jende aberats okitu horien imorraren meneko. Deneri ontsa egin behar eta zer abantaila ateratzen duela uste duk?»

«Hala duk ba, Jose, batzuren zortea hitsa duk, ba hitsa...»

Gauaren freskurak jabetu ninduen. Nahiko nuen ilunpearekin nahasi, ilunpearekin barreiatu. Neure zangoak, neure besoak, neure burua, neure gorputz osoa galdu nahiko nituen itzala galtzen den bezala. Baina gaua hotza zen. Eta hotzarekin gaua sartzen zitzaidan zangoetan, besoetan, buruan, gorputz osoan. Eta gaua gau zela berean, nitaz bestelakoa, konturatu nintzen.

Eta gaua beste mundu bat ere zela, pausuaren mundua, loaren mundua, ixilpeko bizi baten mundua. Bakarrik barruan naraman opildura tinki bat, begietan lanbro xehe bat: Anjela, zure begi urdinetatik erori nigar xortak? Gauaren ilunpeak zekarren bere beltz-zurpaila. Edo ere begiek ez zuten utzi nahi gaua nagusitzera. Ere begiek gaua zilatu zuten, zilutzen zioten bere beltz-zurpaila. Eta dera nintzen mugimendu, gauaren barruan, gauaren artetik: odola kurri senti nuen zangoetan, besoetan, buruan, gorputz osoan. Berotasun epel bat sentitu nuen larrua kilikatzen, emeki-emeki gozotasun bat ere erraietan barna hedatzen. Egunaz egin urratsak, lanak, pentsaketak, lagunekin erabili solasak kasik ohartu gabean eta usaiakoak, ikusi edo kurutzatu jendeak, gauzak, aditu ditudanak eta ahantzi, agertu dudan seriosotasuna eta trebetasuna eta abilezia, denak deuseztu zitkdan bat-batean bizi-pilpira honen indarrak. Eta gauaren beltz-zurpailan neure xendera irekitzen abiatu nintzen. Argiak iluna zilutzen eta urratzen duen bezala: abiadura izpi batean lehenik, eta, neurriz-neurri, hedadura beteago batean gero. Gaua eta eguna nola diren bata besteari harmoniaz polliki-polliki lotzen eta nola diren elkarretatik bereizten, sasoinak markatu neurrietan, luzeago edo laburrago, hotzago edo beroago, argiago edo ilunago, izadiko gauza guziak direla mugimendu hontan sartzen, inguratzen, neurritzen eta bizitzen..., ni ere sartu nintzen gauaren munduan. Indarrak nintuen bilduago, sentimenduak azkarrago, ametsak aberatsago, une labur hontan: bizi nintzelako sensazio beteago batek hartu ninduen. Kasik mundu osoa neure barruan hurbilago aurkitzeraino, lotuago eta bilduago.

Lasaitasun pausagarri batek kurritzen ninduen, trebeskatzen, bultzatzen aurrera. Gauarekin adiskidetzera. Autoen zarratak karriketan entzuten nituen, arrabots etengabe, baina urrunean bezala, itsasoaren marruma pausatua hautematen den bezala leihorretan. Bidean eta gero piztu beldurra ere zainetan antzkatu zitzaidan. Ustegabeko izialdura baten ondok hatsa laxatzen den bezala eta bere ohiko erritmora heltzen, birrikak ari zitzaizkidan goxoan beren lanean: aire freskoa hartzen nuen ausarki eta botatzen, sudurpea berotasun ezti batek inguratzen zidala. Ezantza gustu bat zekarren aireak. Baina aspaldi honetan ez nuen dastatu itsas aire gazitua. Bakarrik oroitzen naiz udako gau izartsuetan, ondartzan luze-luzea etzana, nola egoten nintzen aire gazitua iresten. Arratsaldeetako jende metatsetik atera giza herdi lodi-bortitzak, ordukotz itsasoak garbituak zituen. Aire gazia zekarren itsasoak, garbi eta sano, odolaren pizgarri. Oroitzen naiz ezantza gustu hau ahoan erabiltzean eta amets egiten dut neure herriko ondartza gazituan arearekin amultsuki jostetan ari naizela: bir-bir area barreiatuz gorputz gainean edo metatuz sahetsean edo zilokatuz neure inguruan... Ere gorputza itsasoak hartzen du eta, bere

marrumaren intziriaz, loerian pausatzen, ondartzako are gazituan. Atzartzen naizelarik, eguzki printzeak dirdiran eta dantzan ari dira jadanik uhainekin eta, igerika abiatuz, juntatzen nitzaie, arinki perekatuz ur gaziaren gain beteak. Itsaso barean gorputza dabil bilintzi-balantza uhainek eramana beren erritmoan. Ekaitza ez da egungo eta eguzkia bere goizetako bero urrunean da oraino: berari begira gorputz osoan sumatzen dut atsegin lilluragarri bat; dena biltzera eta iraunaraztera saiatzen naiz hatsa pausatuz. Eguzkiaren bero urruna eta itsas uraren gazia neure gorputz barean hartzen ditut eta juntatzen ditut eta gozatzen ditut igerika bano batean. Baina hiria hantxet iratzartzen ari da eta lehen solasak lasterka abiatzen dira portuko karriketari. Eta giza izerdi usaina ere atera zen itsas aldera.

Gau berriari begiratu nion beldurrik gabe. Eta den mendren dudarik gabe finkatu nituen neure lehen urratsak. Txominen hats beroa aurpegi sahetsean sentitu nuen haize epel baten ufakoa bezala. Eta aurrera abiatu ginen.

Gizon mehar bat jalgi zen B atetik. Usnatu zuen gaua. Txakur koxkor bat laxatu zuen samatsean. Hau bertan kokorikatu zen kakiteko; gero, buxtana daldarikatuz, joan-jinka abiatu zen zuhaitzen artetik. Gatu bat harrotu zuen hor nonbait bere pasaian tarrapata gaitzean eskapi baitzen. Gizona kutzu-kutzu zihoan kanpo aldera, esku ezker sakolan, eskuinekoan dilindan zuela txakurraren esteka. Ate handira heltzean, hau ireki zuen eta memento bat txakurraren haiduru egon zen. Txakurra etorri zitzaion eta pasatzean intziri alegera bat bota zion. Gizona ere jalgi zen eta atea utzi zuen banba bera hestera.

Kartierreko itzulia eginen zuten ttuku-ttuku, gauero bezala, bata bestearen ondoan, bata bestearen ondotik, elkarri jarraikiz. Aladere txakurra zaluago noiztenka ibiliko zitzaion, baina karrika izkinean haiduru egonen zitzaion, eskuin edo ezker aldera segitzeko. Zer xede zuen edo zeren gutizia, gizona eskuin edo ezker abiatuko zen. Bere oroitzapenetan joanki bazen lanpaderek trazatu bidean ur handiaren bazterreraino, txakurrak bazekien itzuli handia eginen zutela ezker hartuz eta goizik sartuko zirela. Bere adineko lagun zenbait aurkitu nahi baldin bazuen aldiz, eskuin hartu beharko zen. Hor, ehun metra aitzinaxago, kafe bat bazen. Gizona sartuko zen eta bierra bat manatuko zuen. Lagunak etorriak ziren edo laster etorriko. Iragan mundua pirka-pirka bilduko zuten gaurkoa gaindituz. Eta gaua ahantzirik elkarrekin betiko solasak harrotuko zituzten. Batzutan botza altxatuz, beste batzutan apalago, dena kar eta sentimendu, irri eta kalapita, arin eta sarkor, arralleria eta zuhurtzia, ariko ziren orenak eta orenak mundua itzulikatzen, elkarri bizi gozotasun poxi bat eskainiz. Txakurrak aspaldian bazekien haien solasen berri eta, maltso-maltso, bere nagusiaren mahai azpian lo egiten ahalko zuen. Berek zekizkiten gertakariak aipatzen, iragan bizi puskila bat gogoan biltzera saiatuko ziren gizonok. Eta hitzek dakarten ilusio harrigarrian zorabiatuak, elkarri ariko ziren elkar entzun gabe, gertakariok oroitzapen onuragarrienaz troxatzen eta emendatzen. Xuxen zer izan ziren gertakariok, beren bortitzean eta beren ondorioetan, nihork ez du jakinen. Nolako drama zekarten, nolako injustizia, nolako zapalkuntza, nolako desegintza gizon edo emazte baten bizitzan: hori guzia gordea zegoen urteen metapean. Eta hauetarik bat ez zen ausartatzen gertakarien zola minberatsu hori karrakatzerara. Nihor ez zen menturatzen gertakarien mami gordina zilatzerara. Nahiago zen ur erreka gaineko argidura fluxa eta musika nostalgikoa harri tartean, zolan lodi-lodia metatua zen lohi beltza makil luze batez harrotu baino.

Mahai inguruan, bierra edan eta edan, gizonak ari ziren bizi puskila bat amesten. Funtsean beharrezkoa zitzaion beren bizitzaren puntan, bizitzaren baztergian, ur gaineko argidura mugikorra eta harri tarteko musika nostalgikoa. Ez delarik aitzaki finkaturik, ez delarik familia bat hazteko eta altxatzeko, ez delarik ofizio batean egunero indarrak enpleatzerik, edo ez delarik gerla batean idealismo hutsez enganatua izaterik, eta bizitza halako huts batean kalankatzen delarik, jendeari sortzen bide zaio deseginaren inpresio beldurgarria.

Barmanak bereari segituko zuen: bierra xerbitxatzen, basoak ikuzten eta xukatzen, konduak egiten..., tabako usainez gohaindua. Eta gauerdi ondoan argiak hiltzen hasiko zen.

Gizonak zangoak herrestatzean, txakurrak bazekien itzultzeko tenorea zela. Gizonak bere gorputz nagia xutituko zuen kadira uzkitz pusatuz eta bi eskuak mahai gainean finkatuz. Gizonak elkarri eskua tinkatuko zuten: «Bestaldi arte» elkarri erranez. Eta bakoitza bere alde joanen zen. Txakurrak gizona lagunduko zuen xuxen etxerako bidean. Gizona aldiz alai eta kezkatu ibiliko zen. Bierra gustuz ahoa betea, oraino zebilen oroitzapen azken piruak ezin bilduz. Joanago eta zailago gertatzen zitzaion. Etsitzeraino. Azkenean, irri karkaila batez bukatuko zuen bere saiakera. Zeren, zer balio zuen betikotz joana zenaren ondotik akitzea? Bere bizitza leize zilo bat bezala iluntzen ikusiko zuen, bizi izan zituenak, maitatu izan zituenak, emeki-emeki ilunpean gordetzen ari baitzitzaizkion. Ezin zezazkeen gehiago denak ezagut. Gauza batzu, gertakari batzu, jende batzu... oraino hazta eta itenda zitzazkeen. Baina, guti edo aski, denen itxura ari zitzaion urruntzen, arrotzen, desegiten. Leizean barna joanago-ta ilunpea tinkiango, galduak ari zitzaizkion gertatzen urte luzeetan ikusiak, entzunak, hunkiak, maitatuak, hastiatuak. Gaur bezala beste ainitz aldiz saiatuko zen goian zegoen argi izpia deitzen eta hurbilagotzen. Baina goiti behatzez burua zitzaion laster nekatzen. Emeki-emeki ahantziko ere zuen argiaren kolorea. Iragan biziko urteak bata besteari lotzez buru-muinak zitzaizkion sobera berotzen arrunt nahasteraino. Lotura guziak trenkatuak sartuko zen ilunpearen erraietan.

Elektrika argian ongi ezagun dira karririk. Ez da arren galtzerik. Immeublak saheskatuz joanen zen gizona. Xanpa labur bat botako zion txakurrak ate handira heltzean. Esteka lepotik emanen zion gizonak. Matela milikatuko zion txakurrak. Beren apartamendura helduko ziren eta lo egitera saiatuko.

EZ dira beharba hain arraro zuhaitzak hiri batean, baina arraro bezala dira immeubla arteko samats hertsian. Samats honetakoak beltz-beltza ezagun ziren ilunpean. Hostoak galduak, biziaz hustuak irudi zuten beren adar deseginekin.

«Ikusten duka hemengo oihana?» erran zidan behin Migelek.

Ez nion baitezpada ordu arte halaxet kasu egin delako oihanari! Betire presan nindabilen eta ardurenik gauaz. Arrenkuraz burua hantua. Egun hartan haatik, igandea baitzen, biak elkarrekin baskalduak ginen, *La Grillade* ostatuan, *Denfert-Rochereau* plazan. Ongi baskalduak eta doi bat beroan. Arratsalde apala zen Migelekin sartu nintzelarik. Bekan ginen elkarrekin goxoan egoten. Ez nuela halako prisarik segitu nintzaion apairu denboran hasi solasen harian hartua. Metroan jende gutti zen: Español, Italiano eta Araba, haurreriarekin. Beren beztiment desberdinekin eta koloredunekin, astegunetan ez den giro alai bat zekarten estazio inguruetan.

Migelen immeublako samatsera ttuku-ttuku ailegatu ginen.

«Ohartua haiza hortxetako haritz horri?» erran zidan Migelek.

«Ez diat sekulan halaxet kasurik egin hemengo ingurumenari», erantzun nion.

Beste platana eta zuhaitz artean, bazen haritz bat bere oparotasun guzian handitua eta hedatua.

Petigora behatzen ziola, Migelek segitu zuen:

—Arrasterietan, lanetik etorrita, bakarrik naizela, ene leihotik kanpora begira, ez jakin zeri pentsa, zer egin, nostalgia pizu batek hartzen naik. Hik ere sentitu dukek, Jose, sentitzen dukek, etxetik hain urrun eta atzerri hontan, zer izaten ahal den bakartasun hori...

—Alta ez diagu ez arrabotsak falta...

—Arrabotsa, arrabotsa, hala duk ba, Jose, arrabotsa karrikan, arrabotsa metroan, arrabotsa lanean, eta, oraino, gauean, bukatzen ez den arrabotsa... Buru-bihotzak nahitaez hartzen, trebeskatzen, zorotzen dituen arrabotsa. Batez ere gauean, ohean ezin lokartuz arrabotsak ziztutzen hauerarik heure arrenkuretan, heure nahigabetan, heure buruko-minetan. Desesperaturik loaren bila habilelarik eta zerbait abiatzen zaukalarik eta arrabotsak berriz trenkatzen daukalarik, eta heure buruaren aurrean ezin antzokatuz bakar-bakarrik aurkitzen haizelarik...

—Ganbara txar batean, presondegi batean bezala. Deusik ez duk heurerik. Ez

duk telefonarik. Ez duk ezagun bat aski hurbil ezinbestean bederen haren ganat joateko...

—Edo behar dik aski akitua izan, leherregina, ganbaran sartuta arrunt lokartzeko. Edo, doi bat forman, leiho hegitik, murru pareta eta zuhaitz kasko hauen gaina baino urrunago amets batean ihes ibiltzeko.

So egiok haritz honi, bere enbor eta adarrekin, zuhaitz bastart hauen artean bakarti. Eta imajinatzen diat, bere etsipenaren etsipenez, gizon batek zuela hemen landatu bere biziaren irudimenaren finkagitzat. Ez duela aspaldi, Itsasuko plazan gazte abertzale mordoska, batek haritz ondo bat landatu zuen bezala. Eta zendako zuten behin Euskaldunek haritza hautatu beren libertateen sinbolo bezala? Eta zendako zuten bada Gernikan landatu? Eta, zendako, gaur ere, gabiltzak geure sinboloak haritzean imajinatzen eta finkatzen? Erroak deseginak ditugularik, harri-enborra falta zaigularik, hostoak pusan ez ditugularik, zendako gabiltzak, indar eta borroka, ebaki diguten haritzaren inguruan geure libertateak imajinatzen?

Ezagutzen ote duka Peio eskultorea? Behin ikusten izan nintzaiokan eta erakutsi zizkiakan harrizko buru batzu, begi eta sudur, baina ahorik gabe. Begi larri batzu mundu osoari irekiak, mundu osoaren jabe. Sudur hantu bat mundu osoa usnaten, mundu osoaz hazia. Baina ahorik gabe, hitz bat ezin atera, ele bat ezin murmurika. Erakutsi zizkiakan buru biribil batzu mundu osoaz biribilduak: gure herriko mendiak eta itsasoak, gure herriko ibarrak eta zelaiak, gure ur meheak eta lodiak, gure lur lantukak eta pentzeak, beren kolore eta argidurekin, denak mira zitezkeen barruan. Jakintzaz apainduak eta gizatasunez jori: sentimendu eta gutizia, amets eta xede, arralleria eta nigar, sorgune, iturri nasai, ikaragarriko bizitasunez animatuak. Baina denak hor, hantxe-hementxe lurtean landatuak, lurrari lotuak, lurrari elkartuak, elkarri so ixil-ixilik, ezpain hetsiak, mihi kokatuak, mihi ebakiak, aho mutuak. Peiok erran ziakan, buruok sinbolizatzen zutela euskaldun mutua. Edo, xuxen errateko, mintzatzea debekatu dioten euskaldun jendea. Zernahi pentsatu diaukuie: frantsesa, espainola, latina, greka eta beren eskolak, gure euskara galerazteko, suntsitzeko. Zernahi jukutria asmatu diaukuie: gerla eta historio, gure herritik urrunduak izateko eta gure identitatea puskatzeko. Eskultorearen lana duk, Jose, harri horien ezpainak xorroxtea, mugitzen has daitezen. Gure eta denen lana duk geugan dugun bizitasunaz eta odolaz gure buruak altxatzea. Geure kexuan, geure erasian, geure hizkuntzan erranen garelarik, bazterrak hasiko dituk ikaratzen. Nik erranen deat, Jose, bazterrak hasiko dituk aldatzen.

—Etxepareko Joanesek, duela bost mende, Buzunaritzetik, Eihalarren gaindi, euskara atera zikan Garaziko plazara, eta Garazitik mundura. Bere poema zoragarrietan eta askatuetan euskara abiarazi zikan munduz-mundu dantzara. Euskaldun gizonak eta emazteak, beren melodia lillugarriekin, euskal hitzen

trostan eta klaxkan, agertu zitukan beren mundu menditsu eta urtsuekin, beren sentimendu gogor eta beroekin, beren oihanetako zuhaitz eta loreekin. Gizonak eta emazteak, farrandan, euskararen dantzan koropilatuak, bidez-bidez eta plazaz-plaza, mendi kaskoetatik eta ibarretatik, zelaietan gaindi, itsasoetaraino eta urrunago. Eta euskara, denetan, hasi zukan bere espazioak zizelatzeko; haitzur eta pala, haizkora eta aihotz, segitu zikan bere eremuak irekitzen, largatzen, apailatzen. Mendeak trebeskatuz, Joanesen intuizioak harrapatzen gaitik, hi eta ni, eta gure herriko anai-arrebak eta atzerrian bizi diren Euskaldunak. Mendeak gaituz, Joanesen ametsak barruraino inarosten gaitik. Galdu ez den euskara, gure mundu gordearen sorgunea eta gure identitatearen finkagia, berriz gudan hasia duk erakitzen, gure ezpainen ari duk odol berritzen, gure gorputz osoan ari duk dantzatzen. Ikasiko ditiagu Xuberoko kantu zaharrak, gauean luzatzen diren aire melankolikoak, eta argi urratzean, esnatuko gaituk eguzkiaren beroarekin. Gure herri-bestetako elkarretaratzeetan, karriketan, plazan, ostatuan, gure jokoetan, gure izerdiaz eta gure odolaz, gure hizkuntza agortua hasiko duk mintzatzeko, hasiko duk kantatzeko, hasiko duk gure buru-muinetan hostokatzen eta loratzen. Peioren buru borobilak aterako dituk lurretik eta, elkarri hizketan, elkar aurkituko die eta elkar ezagutuko, bidaia luze baten ondoren familia berekoei gertatzen zaien bezala; mende guziak trebeskatuz, jauzirik eta gaituz, elkar juntatuko dituk eta beren espazioak kurrituko ditue, inguratuko ditue, denak berriz izendatuz. Euskararen eleak gure hiri eta herrietako harrietan zizelatuak izanen dituk; gure bidez eta karriketan, nola ur erauntsiak burustan ixurtzen diren, jauzteka erabiliko dituk gure ezpain beroen mugimendu sukartsuan. Gure itsasoetan, gure zelaietan, gure ibarretan, gure oihanetan, gure mendietan, euskararen eleak odolez eta izerdiz haziko eta hanpatuko dituk eta berriz ere gure bilguneetan melodia erotikoa eta alaiak adituko dituk sinfonia suspergarrienean. Geure historiaren pusketak bilduko ditiagu eta lotuko geuk bizi dugunaren hariak. Geure biziguneetatik euskaraz idatziko diagu geure identitatearen poema: itsasoen uhainekin, gure leihorak baino urrunago, kantatuko ditik honek gure jainu apartekoaren obrak. Uhainen erritmoan dantzatuko ditiagu geure eremuetako mendiak, ibarrak eta zelaiak, geure oihanetako zuhaitz hostoen firrinda, eta erreka zolan dihoan iturritxoaren murmurika.

Zeren gure herritarrak ez baitira jende tontoak! Ezagutzen ditue harriaren eta egurraren zainak, aroaren aldarteak, mendiko bazka motak. Lurraren intziriak hautematen ikasi die. Haizearen itzuliak segitzen bazekie. Trumoiaren pasaiak ez ditik izitzen. Itsasoa ere doi bat hezi die beren arrantzaldi luzeetan. Eta beren mundua elestatzen ikasi die mendiko zorrotzarekin, zuhaitz hostoetako firrindarekin, ureko freskurarekin, lurreko intziriarekin, harriaren gogorrarekin, egurraren bikainarekin, eguzkiaren dirdirarekin, haizearen biguinarekin. Eta beren mundua duk aro ederra, ekaitza, oihanetako lore basa, iturriko ur freskoa, lurraren emaitza, haize hegoa, euri erauntsia, neguko hotza eta udako beroa, larrazkeneko iratze gorria, primaderako promesa. Euskararen hitzekin, euskararen hitzetan, nola eskultoreak harriarekin eta egurrarekin, erraten dizkiguie bizi dituztenak: koloreak

eta ilunpeak, sortzeak eta heriotzeak, ametsak eta xedeak, bozkarioak eta goibeldurak, amodioak eta samurgoak, zohardiak eta trumoiak, eta beste asko gauza...

—Bilbon, Donostian, Atarratzen, Baionan, Gasteizen, Donibane-Garazin, Iruñan euskararen irrintzinak gure jendeak bilduko dituelarik, Jose, gizon eta emazteak, haur eta gazteria, kaldan, suharki elkartuko dituelarik..., hala duk, gure bazterrak hasiko dituk oparotzen.

Indarkako lan bat egin izan balu bezala, Migel izerdi uharretan jarri zen. Haritzaren hosto artetik eraman zuen bere soa tristura luze batean. Gaua zetorren pollikiño gure flakezia guziak eztizera. Haize arin batek higitzen zituen zuhaitzaren hostoilak. Ixilune sakon baten ondotik, Migelek jarraiki zuen, ukabilaz enborra azkar jotzen zuela bietan:

—Baina, geure herrian eta atzerrian, zendako gaituk debekatuak? Zendako gaituk kontrabandan bezala bizitzera behartuak? Espaziorik gabe. Askatasunik gabe. Pizti lanjeros batzu bezala gaituk ikusiak eta bazter guzietatik huxatuak.

—Nik ez zekiat zer pasatzen den jendeen tripatik, jendeen burutik. Nik ez zekiat nolaz gaixtakeria gugan landatzen den. Ala gaixtakeria mikorik gabe berdin basatzen ahal ote garen? Itsasoa ere, zendako da batzutan bare eta beste batzutan ekaitz gogor? Haizea, zendako da batzutan zirimola xoragarri eta beste batzutan arrunt basati zuhaitzak botatuz, etxeak eta funtsak xehakatur? Bare izaten ahal dena, zer gisaz da hola basatzen? Nik ez dioiat konpreni zer pasatzen den jendeen bihotzetik elkarrentzat hoin gaixto bilakatzeko, herraz eta mendekioz elkar suntsitzeko...

Ttipian, sugeak ez nintioian ikus. Orain ez zekiat, haiek ere bakandu bezala baitituk. Zer beldurra sugeentzat! Oroitzen nauk, ekainako bero minean, eskolarako bidean, Aroztegiko mahastiko murru zaharretan suge batzu kaliturik. Hortxe suge bat, murru gainean luze-luzea etzana, harri zaharren koloreekin nahasia, luze-luzean tiratua eguzkiaren bero guzia beretu nahi izan balu bezala. Hor nonbait makil bat harrapatzen nian eta gora altxatzen. Zango punttetan, azantzik egin gabe, polliki-pollikiño sugeari hurbiltzen nintioian. Sugea ez zukan ohartzen ere. Lo zukeian eguzkiaren beroan indargabetua, bahaki nola geldi-geldia, harri zaharren gainean. Banba, garkoan, makil ukaldi gaitza ematen nioian, eta beste bat segidan, eman ahala azkar, odola bero nueno. Eta sugeak gorputz altxatze bizi bat egiten zikan behin, baina mugimendu osoa erdi hautsirik ttafla erortzen zukan harri zaharrea, arrunt kolpatua. Hila izanagatik, halako bulta gaixto batean, beste bizpahirur makil ukaldi ematen nizkioian ene errabia kalda eztitu arte. Behiak mendira alatzean, zenbat aldiz ez zainak agitu, ote artetik jalgi suge bipera batzu bertan kalitzea. Izialdura latzaren ondotik, halako goxotasun bat sentitzen nian gorputz guzian.

Makil puntan biltzen nian sugea eta besainka debruetan hara botatzen.

Odola bero sentitzea, zainak eme akulatzea, gorputzean indarra sendotzea, ez duk uste, Migel, zerbait dela jende batentzat? Bere izialdura eta beldur guziak kukutzen ahal dituelarik halako basakeria kolpeetan. Bere ahulezia eta flakeziak itzaltzen ahal dituelarik animaleko oihu batzu erasian botatuz, dena espantu eta zalaparta. Ni, ez nauk baitezpada harritzen batzu besteen ipurditik baldin bazihoazek aharra xekatzen eta pizten, beharrezkoa baitzaiek norbait direla uste izateko, beharrezkoa baitzaiek beren beldur ikaragarria ixilarazteko. Ez dik hanbat sorgina izan behar ohartzeko botere mota guziak beldurraren gainean sortzen direla, indarkeriaz nausitzen eta finkatzen direla, eta beti indarkeriaz irauten ere dutela beste indar bortitzago batek uzkaile arte. Den jenderik boteretsuena ahulena bilakatzen duk indarrak flakutzen zaizkiolarik eta jakin-ezak bere harrokeria sartzen duela orduan! Bai, besteak aski sofriarazi ondoan, besteak manupean aski tinkatu eta xurgatu ondoan, jakin-ezak holakoari espantuak sartzen zaizkiola, herbail eta konkor bere indar famatuak senditzen dituenen. Baina beldurra ez zaiok laxatzen, lotuagotzen baizik...

Irri karkailaz hasi ginen biak. Joan ginen afaltzera.

Bulta honetan zerugaina lanoetan tapatua zitzaigun. Eskualde menditsuetan elurra zelarik, hemen euria ez zen atertu. Eta negua, bere pizu osoan, etsigarri zen gaua eta egunaren arteko argidura hastiatzeraino. Anartean biziak irauten zuen, doidoia bezala kasik, ondoko egunetako aro hobeago baten menturan. Azkenean lanoak destinkatu bezala ziren, laxatu eta barreiatu. Gaur, zerugainean lano bir-bira bat ikus zitekeen, lano zurpaila, arin-arina hedatua. Aro epela zekarren haizeak. Aspaldiko partez ilargia, betean, ageri zen eta argidura busti batez polliki-polliki lanoak baztertzen ari zen, biharamun goizean eguzkiari zeru garbi bat eskaintzeko gisan. Gauza ororen gainetik berarengana altxatzen gintuen, eremu zabalago batetan ibiltzeraino, muga guziak urruntzen eta erortzen diren eremu ikusgarrian. Eta gauaren ixiltasuna bera zen gertatzen dena murmurika, soinu eta solas xoragarri, natura guzia, jendea lokartzean, lasaiago mugitzen ari izan balitz bezala. Bortxadurarik gabe, deskantsuan eta lazoki. Izadi guzia, bere erraiak laxoan, bizitasun kaldan erakitzen ari izan balitz bezala. Irudimena zihoan ilargiaren juntadurak hunkitzeraino, bere eguneroko xoiltasun etsigarria ahantzirik, betikotasuna amestuz. Ustez beharba ilargiak zekarkiokeela galdu nahi ez litezken gutizia ororen iraupena: bizitzaren pilpira harrigarrial Borrokaren haraindian gutiziatzen eta itxuratzen dugun eremu nasaia, bekaizgoa eta urdekeria mota guzietatik askatua, herra eta aharrabide guzietatik aparte.

Bere mugimendu maltsoan zerugaina xahatzen ari zen ilargia, biharamuneko espazio zabalak agertuz. Bere argidura apalean ahantzi nituen atzoko arrenkura goibelak. Eta bizitzaren sorguneetatik zetorkidan zorion samurra gozatu nuen izadiaren harmonia jorian.

Lanean bortxatzeaz, lasterka ibiltzeaz, eztabaidetan berotzeaz enpoildu indarkiak, izadiarekiko ezkontzan arra-biltzen saiatu nintzen. Lurraren izerdia odolean, haizearen bolada zainetan, ilargiaren guria haragian, ene gogo espazio zatikatua eta denbora negurtua gaintuz zihoan jakitate berri baten bila. Izakiak beren muinean, mugimenduak beren erritmoan, jendetzak beren motibazioan ezagut lezazkeen jakitate berri baten ondok. Nola itsua dabilen berari dohakiokoen argiduraren bila gauzak eta izakiak haztatuz, itxuratuz eta beren sakontasunean ikertuz, halaber gauzak eta izakiak arra-ikasten ari naiz beren azal higatuak jauzaraziz. Uste duketalakotz dakidan guzia gauza eta izaki ororen kuskua baizik ez dela eta kisku honek nigan utzi inpresio iragankorra. Balitz gauza eta izaki ororen mami sakona, gure jakitate flakoa finka lezakeena eta gure gizatasun urduria behingotz segurta lezakeena? Liferentzia guziak onartuz eta beren distiran miretsiz, izadiko gauzek eta izakiek, beren sakonean, dakarten jakitatea ari naiz zilatu nahiz, ikasi nahiz. Ustez, orduan askatasuna posible litzatekeela, askatasun berdina eta osoa, gizonaren hatsa!

Lano mehe bat atera zen multzoak: ilargia trebeskatu zuen eta, bestaldean, multzoari berriz kokatu zitzaion. Gauza hori, dramarik gabe pasatu zen, ballet batean

dantzariak batzu besteen ondotik, aurretik eta atzetik itzulikatzen diren bezala, erne eta arin. Zerugaina, bere urdinean, ari zen pinpirintzen, lurrarekiko besarkada nasaian guganat hurbilagotzen. Txoratuak geunden bizitzaren hatsa gugan hain luze eta sakon sumatzean. Eta, orain harrotu ez ziren energiak, gugan hasi ziren atzartzen, higitzen, elkar bultzatzen gorputz osoa sendoki azkartzeraino. Gauaren erraietatik egun berri bat moldatzen ari zen ilargia.

Zazpigarrenera heltzean, Txomin eta biak baratu ginen elkarri so. Bihotza beraztu zitzaigun. Txominen begietan halako nigar lanbro bat iruditu zitzaidan. Beharba, une horretan, hura ere oroitu zen Migel ezagutu genuen egunetik beraren gelan iragan mementoetaz. Askotan elkarretaratzen ginen hiruak eta kasik beti Migelen gelan. Kabalek ere badituzte mendian beren leku laketak, itzal baten gatik edo iturri baten gatik! Migelen gela alta ez zen nihon ez dena: lehengo jauneriak bere sehientzat hegatzpean zedukan gelatxo horietako bat, tokia eskas aire, baina ixila. Bilakatu zen gure itzalpea, gure iturria.

Baitzakien Migelek wiskya genuela edarietan gustukoena, aladere hiritartzean gustuak ere doi bat aldatzen bide dira, beti bazuen gaminet txokoan botoila bat hastekoa. Horrela, gauean, goiz alderaino egoten ginen, edan eta pipa, geure herriko gora-beheretaz solasean. Zeren, geure gogoaren kontra eta beste arrazoin batzuren gatik, Parisen bizitzera behartuak baiginen. Gu, duela bizpalaur urte etorri ginen eta Migel geroxago. Guk laster hartu genituen Pariseko arak. Migelek aldiz irudi zuen beti pasaian bezala: bere erroak eta loturak beste nonbait zituzkeen. Bere lanetik lekora gutti ibilki zen Parise bisitatzen. Behin aipatu zigun Louvre museoa bisitaturik: ainitz gauza ikusgarri gustatu baldin bazitzaizkion, gogo gaurko zeretara lehiatuagoa zuen, batez ere bere sor-herrikoetara...

Billancourten, Renault uzinan lan egiten zuen. Bera laborari semea zen. Bazuen bertute eta kalapio. Haseran zernahi ikusi zuen uzinako erritmoa ezin hartuz. Lotu zen halere uzinako lanari laharra lurrari bezala. Axalez bederen jarri zen horko arari, erritmo kontrakoen arteko tira-bira nihondik ezin garaituz. Lanetik lekora, bere erritmo normalera biltzen bide zen, pentsakor, orenak iragaten zituela munduko langileriaren arazoak, borrokak ikertzen, aztertzen eta sakontzen. Haren xedea zen sor-herrira lehen-bai-lehen itzultzea.

Bere begi beltzetan herri mina zekarren. Txominek eta biek, delako gau luze haietan, ikasi genuen gorde nahiko genuen mina ezin ahantzia zitekeela. Migelek lagunekin gozoki irri egiten zuen wisky basoa ezkerreko eskuan altxatuz. Gauerdi pasatu-ta izpiritua argi pindarretan jartzen baitzitzaion, hasten zen hasten solasean, ezin segituzko xenderetan garamatzala...

Oroitzen bide zitekeen ni bezala, Txomin! Hor geunden tente eta mutu, burutik behera jasan banbako batek zentzordatu bagintu bezala. Berriz ere konturatu nintzen gertakari batzuk, bukatuak eta jadanik iraganak izanagatik, gudan jarraikitzen dutela: gure izpirituan, gure sentimenean, gure haragian; beren herexa geugan barna utzia digutela; batzu direla suspergarri bestek aldiz etsigarri; gure eguneroko jarrerak eta joerak baldintzatzen dituztela... Bakoitzaren historia indibiduarena baino eremu zabalago batean errotzen da, segurki, hazten eta egiten ere. Baina bakoitzaren historia zinez pertsonala da, gorputzari lotua, sentimena eta pentsamena oratzeraino. Neure historia ulertzeko neure esperientziatik behar diot begiratu. Gertakariak nigan

utzi herexak behar ditut errauspetik baztertu eta irakurri zerbait nahi baldin badut konprenitu bizitzaren eremu zabalean aurrera joateko. Gehiago, gertakariak nigan utzi kolpeak eta zauriak behar ditut bederazka bildu eta karrakatu nahi baldin badut jakin nondik nora joaki naizen eta nori mintzo: nihor nihon ez baldin badut aurkituko ere..., nihork nihon ez baldin banau entzunen ere... Bederen nik, jakin dezadan...

Txominek gakoa zerrapoan sartu zuen. Atea ireki zen.

Ohea desegina zen. Zoko batean «Le Monde» kaseta pila bat eta beste izkin batean, nahas-mahas, kaseta eta agerkari mota guzietarik. Kaderan pausatuak laneko pildak. Gamineteen whisky botoila bat oraino irekitzekoa. Txominek ez zuen tutik erraten. Ohointza batean bezalatsu zalukara genbiltzan, mugimenduak eta jestuak bipil. Whisky botoila pausatu zuen mahai gainean eta bi baso. Hasi ginen edaten...

Migelen arropak balisa batetan bildu genituen plegaturik. Zituen liburuak ere hartu genituen. Orri txuri pila bat ere bazen lurrean eta sahetsean kaier andana bat, haboroak irakurri liburuetatik ateratu apuntez belztuak. Tartean harrapatu genuen kaier bat, azalean «Izerdi gunean» tituluarekin, segurrenik Migelen pentsamendu zenbait zekarkien...

Geure lana bukatua bezalaxe genuen. Jarri ginen berriz. Whisky zorta bat ixuri zuen Txominek basoetara.

Ixilune hartan Migelen falta barna sentitu genuen. Bazterrak txukun, norbait igurikatzen denean bezala, hor ginen goait ixil-ixila. Baina ez zen etorriko. Nihor ez zen hautematen eskalierraren zolan argia pizten eta mailak igaten bederazka. Bidean lagun bat edo beste topaturik, berandu zitzaionetz? Beharba etorriko zen. Ez zen etortzen. Orenak, ttaka-ttaka, markatzen zuen gauaren martxa. Ez zen hautematen. Ez zen etorriko. Migel urrun joana zitekeen eta bere gelan ez gintuen juntatuko, errezebituko. Migel, gaur eta gero, ez zen etorriko, urrunegi joana zen. Gauean barnegi sartua zen. Halakoak zituen begiak... Bere begi beltzak gaua zilatzeke, eta nihork ezagut ez dezakeen argidura me hean gauza xeheenak ikusteko, beren neurrietan inguratzeke eta haztatzeke. Bere burua ahanzi zukeen gauean eta gaueko zeretan joaki zitekeen amorratua, liluratua. Gauean murgildua, gauarekin batua, gauaren argidura biziaz xoratua, bere begi beltzak zer ororen erran-nahi gordea urratzen ari zitezkeen. Gauaren eremuan sakonegi joana zitekeen gugana berriz itzultzeke. Halakoak zituen begiak... Ez zen etorriko.

Ez zen arralleriarik! Txomin eta biak ari ginen edan eta pipa, gara batean trein baten beha aspertuak agitzen zaigularik bezala: erran gaiak oro erranak eta atzarririk egoteaz begiak hantuak. So eta so beste puskileriarik hor nonbait baratzen zenetz, deus ez genuen ahanzten zoko-mokoetan. Eta partitzera ezin mentura halako

presentzia batek han kokaturik atxikitzen bagintu bezala. Irudi espazioak galduak genituela edo espazio guziak gela hertsu hortan tinkatuak zitzazkigula. Mendan gertatzen den bezala lanoak bideska eta xenderak bat-batean tapatzen dituelarik: ez jakin zein aldetara abia, haztamuka baizik, zangoak non finkatzen diren ongi kasu eginez, ziloka batean ez itzulipurdikatzeko. Holako mementoetan, mugimendu eta jestuak bizigabetzen bezala dira gorputza bera kasik poxolu sentitzen duzula. Ohea plegatua, balisa zoladura gainean etzana, bakarrik mahai gainean whisky botoila eta gure bi basoak, gela ttipia arrunt garbi eta huts gelditu zen. Elekrika argi ahulean gure gorputzen itxura flakoa. Halako jestu arrunt batekin Txominek mahai gainean pausatu zuen «Izerdi guneak» deritzan kaierra. Botz erlats batekin hasi zen irakurtzen...

«Eguna galdu da hedoietan eta gaua etorri. Doi bat ixilduak dira inguruko azantzak, kaleko arrabotsak, autoen harat-honatak, jendarteko oihuak. Neure egoitzan sartu naiz. Usaian bezala, ohartu ere gabe, urrats bat urrats bi, zozotua, neure egoitzala heldu naiz. Neurea uste dutan egoitzan sartu naiz. Dependitzen baitu nondik ateratzen eta horra zaren. Lankiatik nator gorputza burdinez, urinez eta errautsez opildua, konkorr eta gogor. Lankiatik nator arrabots eta mehatxuez beharriak tutatuak, pieza berdina egun osoan kadena kurridan ikusteaz begiak deseginak eta bederazka trafikatzearaz eskuak minberatuak. Lankiatik nator aire freskoan gorputza doi bat xuxentzeko, begiak doi bat laxatzeko, eskuak doi bat zalutzeko. Neure egoitza, gela txartxo bat, eskatzearen bortxaz azkenean, milakoen artean, lortu nuena asteri euritsu batez, immeubla aberatsen artean txori kafira bat bezala hegazpe batean kokatua. Besterik ez da, neurea dutan delako egoitza: neure izerdiaren saria! Aire izpi bat zirritutik sartzen zaidalakotz eta ixiltasunak betetzen nauelakotz. Hor nahiko hatsa hartzen dut, bederen nahi dudana bezain luze, nahi dudana bezain labur. Hor neure gorputzean atsegin hartzen dut: xutik, jarririk, etzanik, kurubilkaturik; lo eta atzarririk. Gaueko denboran, oren lazoetan, hor, bederen amets egiten ahal dut, gorputzeko ikara jabaltzeko, ilusio xedeak asmatuz gorputzeko irrikak askatzeko. Nere erasien eta nigarren lekuko ixila delakotz, ematen dit ohantze baten berotasun epela. Hegazpe batean naizelakotz, pentsatzen ere dut askotan kaiolatik eskapi txori bat naizela, txori beldurti bat eta kantuz ari naizela bihotzeko latza ohiltzeko. Hegazpetik kantuz ari naizela aireari, zeruari, ilargiari, izarreri. Zirritutik begiratzen ahal dut ere behean, kalean, joaten-jiten diren guziei, urrats moldeei... Bakoitza bere munduan aparkatua deritzait. Lankiak eta oro, desgustuak eta intziriak, dihoazkit huxtu baten firrindan...

Ate gibelean nuen haiduru bakartasuna. Bestaldean uzten nituen auzoko mugimenduak eta bideko errautsa. Burdinezko ate handia hetsi dut. Gontzetatik botatu dit usaiako intziria. Lehen aldian izitu nintzen ustez norbait hor bazela ene trufatzen! Geroztik elkar hezi dugu eta adiskidetu gara. Zu ere, ate ixila, engoitik ohartua zaitezke hurbiltzen nitzaitzunean ene aurpegia argitzen duen irriari!

Gaua: ixiltasuna eta bakea, baina bakartasuna hor, ilunpean, ene haiduru! Ate handiak ez du bihotzik: gaur ere bereizi nau hoin maite dudana mundutik. Ate handiak ez du elerik, soilki gontzetako ohiko intziri hori... eta ez nau ondikotz hunkitzen!

Halere maite bezala dut ate handia. Egon liteke hetsia eta berdina irekia. Usaia hartu nuen gakotzea. Ez dut gakoa ahanzten. Usaian bezala, gaur ere, atea pusatu dut eta gakotu. Lasai nabila gakotu ate gibelean, zer gerta ere ate handia hor izanen dut neure zaintzale. Hatsa hartzen dut goxoki eta nasaiki ate gibelean. Gorputz guzian senti dut etxean naizela, neure etxean eta deskantsuan. Neurea uste dudana etxean goxotasunak hartzen nau hezur muinetaraino. Noa baratzean zehar, zuhaizpetan, etxe barneraino, gelaraino igaten naiz. Ate gibelean, neure etxean badut toki berezi

bat, toki bero bat, toki zaindu bat: hor naiz bederen nagusi eta... etxeko-andere! Hor badut eremu bat neurea, hertsia baina nihork ezin hunkitua, neure gisan eta modura apaindua. Hor dut neure burua lekuko. Kanporateko maskak kentzen ditut hor sartzean lo egiteko biluzten naizen bezala eta bezain aise. Maite dut ate handia eta gakotua, zaintzen nauelakotz eta maskarik gabe dantzan ari nindaitekela kotz, zenbait orenez, izerditu arte, neure eremu ttipian. Mirentxuk ez nau ikusten: xora liteke! Beldurrak hemen laxatzen nau, irudi, hemen, errealki bizi naizela, birikek hatsa hobeki ohatzen didatela!

Zenbaitek etxe-xakurrak badituzte ate handi sahetsean. Ni ez naiz aski aberatsa etxe-zakur bat erosteko eta hazteko. Bestelan ere ez dut maite etxe zakur bat estekan ikustea: pena ematen dit. Ene etxondoan zakurrak laxoan ibilki dira, hola heziak ere dira. Aberatsek ez dakite zakur bat hezten ez baitakite zer den zakur bat laxoan. Zakurrik ez dut gaur xanpaz ari adituko neure ate handi sahetsean. Eta badakit ate gibelean ongi izanen naizela, zaindua izanen naizela. Doi-doia atea bereizi nau maite dudan mundutik. Halere zein gogotik hetsi dudan eta gakotu. Usaiak bakarrik? Ez dut etxe-zakur estekatu baten beharrik!

(Hemen, pasaia labur bat dena zirimarratua. Hitz zenbait bakarrik irakur zitezkeen: «Opera inguruan... hirur "clochards" mokoka...; Askatasuna doluan... iragaten diren jende horiek: nondik nora doaz? zeren bila?... Mirentxu ez dut ikusi... igandean emanen diot *Begoñak igorri eskutitza*... erosi beharko: kafea, sukrea, gasna poxi bat... 10-ean bilkura 27 rue Aristide Briand. Etorri nintzaizunean, dena intziri dena nigar, zeure bular hegian tinkatu ninduzun, tinkatu amultsuki eta luzaz, zure sabeleko bero epelak inguratu ninduen, beretu... eta bat geratu ginen geure gorputzen erritmo berdinean...»)

Orri huts bat eta segidan...

«Ibili naiz egun, atzo bezala, kale hertzean, usaiako xenderetan. Gutarik bakoitzak baditu bere xenderak; badituzte neureak. Ez beti nihaurk aukeratuak, baina arduenik gertakariz-gertakari irekiak. Aita zenak arrazoin zukeen erraten zaigularik: "Zuek ere beharko duzue ziharen gustuz bizitzen ikusi!" Amak ere holako zerbait bazekikeen, baina ixila zen eta bere ildoak urratzen aski penaturik higitu zen geuk nahiko genuen baino lehenago. Plaza gainean agertu naiz egun, atzo bezala, eta pertsona berriak topatu ditut, so berriak kurutzatu, hitz berriak entzun, aire berriak murmurikatu.

»Bizia sentitu dut odolean, plaza gainean, bideko lagunekin, laneko lagunekin, kurutzatu ditudanekin. Bizia eraki da nigan, ene inguruan, ni baino urrunago. Bizia bada oparo, gairik: denek bizi nahi dute eta hortara lehiatzen bide dira. Gauza arrunta da beharba horrelako zerbait sumatzea eta oihukatzea. Ikastera doazen haurren goizeko irria; ikastegietan trumilka sartzen eta metatzen diren ikasleen portaera lerdena; xantierretan, uzinetan, bulegoetan lekutatzen diren langileen

mugimendu zainarta; hiria baino urrunago, zelaietan eta mendietan, laborarien urrats bipila; baztergietan berandu diren maitaleen gauerdiko musu luzea eta tinkia... Orori bizia dario uda minean izerdia gorputzari bezala: odola eta izerdia, pilpira eta intziria, atzartzea eta urratzea, fruitutze nasaia! Bizia hor nonbait eta zerbait gisaz da orotan ezagun, gauza ororen mamian eta azalean, garrasian edo ixilean, azkar edo flako, ezazol edo herabe. Bizia sentitzea zerbait da bizi nahi duenarentzat. Gauza arrunta beharba? Hainbestetaraino baigara biziari usatzen eta bizian han hara joaten... Zuhaitzen hostoak eta loreak eta fruituak, primaderan, izerdiaren bustiak hazten dituelarik. Lurraren intziri zorionsua, primaderan, pentzeak eta alorrak eguzkiak ihintzetik xukatzen dituelarik. Ongi lo eginik atzartzen zarelarik eta arin-arina abiatzen kafetxo bat, fresko freskoa, hurrupaturik, odola bipil zainetan, gorputza irrikaz bero, izpiritua erne. Bizi hazia ala gordina bere kraskatze eta ernaldietan. Gorputzaren ikara harriak jauzaraztean ur xirripa baten bila han nonbait lurpean, edo mendi aldapari aztaparka lotzean, indarrak bildurik, gorago joateko eta heltzeko, edo maite duzuna besarka tinkatzean, begiak hetsirik, amodioa berriagotzeko... Nork ukatu nahiko dit bizitzearen pilpira gure hats flakoaren une batzuetan? Bizia hurrupa zitaken odol erakituan, alde orotan!

»Opil biribil bat dirudi ilargiak zeruan. Bere argi horaila mehatzez galtzen da urruneko sahetsetan. Zirritutik sartzen den dirdirak doi-doi erdi-argidura batean uzten nau: bekoz-beko behatzen ahal diot denmendren itsutzerik gabe. Halako bildutasun batean sararazten ere nau. Buru-muinak mardo, bihotza biguin, gorputza malgu, ene gogoa baderabil lazo eta flux. "Argizagiak zelütik argitzen dizü eijerki..." dio behialako kantuak. Ilargiaren argiduran zure begien kolorea nolakoa den nahi nuke jakin, Mirentxu. Amesten dut dela berdea. Ez dakit zergatik. Baina ilargiaren horaila zure begi urdinetan nahasia, amesten dut dela berdea. Behin ere ez zaitut begiratu ilargi betearen argidura lilugarrian. Eta nolakoa ere den zure gorputzaren guria zure begiak berdetzen direlarik ilargiaren dirdira' horailean, ez dut orainokoan sentitu. Baina amesten dut dela haragi heze eta mardula. Eta zure mugimendu-justuak direla ortzi-euri erauntsi emankorrek ene erraietan. Neure zorabioan deitzen zaitut. Baina urrunegi zara eta ez nauzu entzuten. Amets honen jauzia nahi nuke gainditu zugarat etortzeko. Gorputza pizuegi ez zait jarraitzen. Ilargiari deitzen diot lagunt nezadan. Baina alferretan: azkarrago eta mutiriago baizik ez dit pizten zurekilako gutizia. Zure besoek inguratzen naute amultsuki eta zure esku laztanak ene bizkarrean dabilta mia-miaka gune kilikak lasaitzeraino. Ilargiari mintzatzen nitzaio niganat hurbil dadin. Baina, elkor eta mutu, ez dit deus entzuten: saminago baizik ez dit sentiarazten zure falta. Nola itxindua sua hiltzerakoan, ene gorputza bakartasunaren husean erortzen da orduan ametsak desegitean... Haurtxoak aitarekin ikasi zuenean gau beltzean ibiltzen topatu ere zuen behin eta gero ilargia zerugainean ibiltari. Gustatu eta maitemindu zitzaion. Nahiko zuen behin-betiko eskuratu, baina hurbilagotzera saiatu eta urrunago gertatzen zitzaion. Ez zuen deus konprenitzen. Samurtu zitzaion eta, nekatua, lokartu zen!»

Irakurtzetik tanpez baratu zen Txomin.

Parise, gauaren ixiltasunean murgildua, bare zegoen... Nahasirik genituen ohiko harat-honaten erreferentziak. Hirur ginelarik edo gehiago bagenekien nondik-nora ibili, eta, lagunetarik berextean, bakoitza zihoan bere urratsaren puntaraino, gogoia amets oroz hustua. Bat faltatu zitzaigun. Ixiltasunak betea zuen jadanik hustu zigun espazioa. Besteak urrun geratzen ziren, gune izkutueta sakabanatuak. Eta jakinen zutelarik, bihotzean zimiko bat sentituko zuten eta, memento bat ixil-ixila, oroituko ziren. Itzal xoil bat, bilintzi-balantza, geldituko zitzaien... gero. Atzokoen ondotik, gaur beste bat; eta bihar? Batzu besteren itzalak gauak berdintzen dizkigu eta urrunduz dihoazkigu bizitzaren aurpegiak. Memento bat oiher eginen badugu ere ez nahiz ahantzi: oiher eta garrasia. Denborak erematen dizkigu atzoko bizitzaren aurpegiak eta geure nigar-intziriak itasoak beretzen dizkigu.

Sagu batek trebeskatu zuen gela. Eskuineko txokora heltzean, baratu zen, begiak ñir-ñir, sudur puntta sendika mugituz. Bere buxtana luxe-luxea zoladuran, biziki pollita zen. Zerbait usnatu zukeen: ziloka batetik brist eskapi zen.

Beharba hiri-erraiak oro ez ziren oraino antzatuak, betire gune batzuk segitzen baitute beren bizitasun gordea. Loan kolokatu alimale bat zirudien hiriak eta deus ez zen haren hertzeetan gure larridura latza: alaitasun guzia galdua zuen gure barne goibelean. Ilargia bera ez zen agertuko. Edan eta edan ari ginen, baina wiskeyak ez zigun usaiako zoroaldirik pizten!

Pentsaketa nindagoen gure herriko langileei, Bermeoko eta Donibane Lohitzuneko arrantzaleei, itsas-hegietan, zelaietan eta mendietan utziak genituen lagunei... Elkarrekin iragan mementoak gogoratzen zitzaizkitan, batez ere udako gaualdi beroak Ondarroako ANAIAK ostatuan: itsas-aire gaziak legortzen zizkigun geure aurpegi izerdituak. Hor biltzen ginenok ahaide aire bat baginuen: itsasoak lurlean zizelatuak gintuen, buruz eta gorputzez trinko, gudurako.

Wisky zorta bat hurrupatu zuen Txominek. Brau xutitu zen, gela hertsian harat-honat ibiltzen abiatu. Besoak papo gainean kurutzatuak, ilun eta pentsakor zabilen. Sekulan ez bezala orduan ohartu nintzen Txominen gorputz gora eta zabalari. Langile manifestapen batetan elkar ezagutu genuen, Eibaren. Gure soak kurutzatu ziren eta adiskidetu ginen. Geroztik elkarri jarraiki gara guduan nola desterruan. Harat-honat erreposki ibilki zen zerbait hauts beldur izan balitz bezala.

«Noiz zen xuxen Zumarragako delako gau hura?» galdetu zidan...

Jitez mutiko alaia zen Txomin, baina gertakari bortitzak jasan zituen eta haren soak zekarkien trebes halako lanbro mehe bat. Oraino haurra zela aita galdu zuen oihanean zuhaitz ebakitzen ari zen batez. Ama laguntzeko eta beste laur haurrideak hazteko, gazterik hasi zen uzinan lanean. Eta langileen arazoak beretu zituen.

«Oh, duela bospasei urte...» ihardetsi nion.

Lagun baten etxean ginen. Lanean ari ginen uzinan ez zen laneko segurantzirik. Biziki baldintza gogorretan ari ginen. Askotan saiatu ginen zerbait ardiestera. Baina nagusiek indarra beren alde zedukaten. Langileek, lana gal beldurrez, ez zuten arriskurik hartu nahi: beren lan orenak egin eta kito! Nahiago zuten etxeko trunkiltasuna: irabazia eta etxea! Haatik, militanteen lanari esker, emeki-emeki eta urtetik urtera, zerbait aldatzen ari zen: kontzientizazioak zekarren bere ondorioa. Oraikoa greba luze bat muntatzen eta apailatzen ari ginen. Bagenekien langile guziak alde genituela, lan kondizione txar horietaz leporaino aseak zirelako. Zenbait egunen buruan hastekoak ginen eta geure organizazioa artoski muntatzen ari ginen.

Pablok buru argia zuen. Ari zitzaigun erraten: «Ez laxa oraikoa, suerte ona baitugu. Behar diegu erakutsi indartu garela, bururaino joateko prest garela, gu gabe deus ez dezaketela. Ez lotsa. Atxik gogor... Etzi eginen diagu erresponsible guzien billera, informazioak zehazki emanen dizkiegu...»

...Jose Mari etorri zen orduan baizik-eta denonziatuak ginela eta laster eskapi behar genuela... jadanik zenbait lagun hartuak zituztela... eta halako...

Tract guziak Pablok beregain gorde zituen. Hasarre ginen, baina zer egin? Laster bazterrak xahatu genituen. Ez zen gutartean solasik, berri txar horrek erdiz-erdi hautsi gintuen. Hainbeste urtetako lana erreusitzeko punduan, horra non ginen desjabetuak, deslotuak. Salatze bat aski izan zen den-denak purruskatzeko. Nondik nor hortaratu ote zitzaigun: gutarteko bat ala beste norbait? Mesfidantza kurritu zen batetik bestera. Pablok ere deus ez zekien, bakarrik hori: poliziak uzina inguratu zuela eta militanteak harrapatzen ibilki zela. Elkar hitzartu ginen non berriz elkarretaratu. Gaua ilun beltzean zelakotz, Txomin eta nik jo genuen Nafarroako mendietara.

Zenbait egun barne Baionan ginen. Hitzartu bezala beste lagunak hor topatu genituen, elkarri berri eman genuen eta erabaki Parisera joatea. Joan ginen joan... Txomin etxegintzako enpresa batetan brazero plantatu zen, ni aldiz banko batetan paper triatzen eman ninduten. Geroztik Parisen bizi ginen. Horiek oro tarrapatan bezala pasatu ziren, karkula handirik gabe. Bide guziak hetsiak edo trabatuak gertatzean, ezinezkoa zitzaigun karkuletan egotea. Instintoak bultzatu gintuen trakatua den abere baten antzera. Ezjakinak luzaz ibili ginen Pariseko kale ertzeetan, kezkatuak eta minberatuak geure lotura guziak hautsirik. Geroztik halako zauri sakon bat barrean: zauri beroa, samina, kiratsa, abere kolpatu baten so tristea!

Txomin nondik zebilen, ez nekien. Purro bat piztu zuen.

Migelen kaierra hartu nuen eta irakurtzea segitu...

...

«Bizkitartean besterik bada plaza ganean. Bada biziak besterik obran. Nahi genuke ez ikusi eta ez dezakegu. Nahi genuke ihes joan baina ez dezakegu. Nahi genuke ahantzi oroimena, gorputzaren itzala bezala, jarraikitzen zaigularik. Zer bilakatu ote dira gure herriko lagunak? Pablo, Joan Mari, Zumarragako langileak, Eibarekoak eta Gasteizekoak?

Samatseko haritzari hostoak erori zaizkio. Zerk epeltzen ote digu bizitzaren pilpira? Bi urrats egin beharrean, bat baizik ezin egin: zerk durduzarazten gaitu? Nahi genuke aitzinatu eta ez dezakegu, geugan dudatzen bagenu bezala. Toki berean itzulika aterabide guziak hetsiak balire bezala. Ez da bizkitartean toki eskasik. Bada eremu nasairik oraino alde orotan. Utzi behar den tokia hartu behar litekeena baino seguragoa balitz bezala. Biziak besterik bada obran plaza ganean!

Goizero ez ote gara guziak lanerako ernatzen? Asko hiritan uzinak ez dira baratzen eta langileak dohaz beren tenoretan gau ala egun. Badoaz... Laborariak ere baditu sasoinak bere ordu latzak; gero-ta arderago trakturraren burrunbak urratzen du baserriko ixiltasuna, eta han, bortuetan bezala mendi apaletan, berant hauteman daiteke zintzarrotsa. Mendien gainen-gainetik ibarreraino jausten da biziaren irrintzina eta ordokiak inarosten ditu nonbait enoatu arte. Argi urratzean haur sortu berri bat ari da intzirika eta haizeak bere musikaz kontsolatu nahi luke, baina plazaraino dator dena antsia eta dei...

Biziak besterik bada plaza ganean: erasia eta mehatxu, kolpe eta zanpatze, esplotazio eta ebaste, gezur eta enganio, azpikeri eta bortxakeri. Errealitatea da bihurtua eta makurtua, norik bestea duen hobekienik baliatuko eta larrutuko. Giro nahasia eta eroa. Abiatu biziak agertu bezain laster erortzen eta porroskatzen balitz bezala plaza-inguruko pareta mutuetan! Biziak eta herioa koropilatuak ibilki dira plaza ganean, mendien gain-gainetan, ibarretan eta itsasoetan. Bizi nahia eta herioaren boterea! Biziaren eta herioaren arteko borroka: gizartean, lagunetan, nigan. Biziak eta herioa zein gehiagoka, errabian, plaza ganean. Gaur ere atto bezala, herioa ikusi dut biziak garaitzen: gizartean, lagunetan, nigan. Herioa sentitu dut, gaur ere atzo bezala, neure odola goxoki xurgatzen: irri karkaila ezazol bat bota zuen ongi ase ondoan! Biziak eta herioa uztartuak ibilki dira plaza ganean...

Iruñeko treina baratu da Parise Austerlitzten: Portugesak jautsi dira beren paketañoa besapean eta, herabe, kanporatu dira garatik. Jaun batzu hor ziren goait. Portuges andana bildu dute beren kortxilara eta lagundu Parise inguruko baztergi ilunetaraino. Hamar orenak zitekeen jakin nuelarik poliziak Iñaki barda preso altxatu zuela. Nigar egin dut. Emazteño hori, bere gorputz gordinen, harat-honat ibilki karrika bazterrean, gauaz, bere nigarrak ahurrean biltzeko nihor ez duelakotz. Beste emazteño hori, haratxago, bere haurra ezin antzakaratz. Portugesak eta jauntxoak, jende ezazolak eta aferatuak, haurrak eta gazteak, andreak eta emazteñoak... iragaten dira kaleetan, hurbiltzen eta kurutzatzen, harat-honat, handik eta hemendik,

iragaten eta joaten dira han nonbait itzaltzeko. Izar ilunperatuak! Iñakik bakarrik zekien nora eta zendako erematen zuen poliziak, polizia baita jende osoki adimentsua eta kementsua! Portugesak, ezinduak, loak hartu zituen: gaua ala eguna, zer zen xuxen, ez zekten. Treina, hamekak orenetan, Iruneruntz abiatu zen!

Herioa sentitu dut, gaur ere atzo bezala, mundua tinkatzen bere izkin eta alde guzietatik: Viet-Nam, Biafra, Hego Amerika... itsasontzi hondatuak! Ospitaleak, presondegiak: jendez mukurru. Dirua, harmak eta jende herresta. Langileek ixildu beharko dute beren onetan, bestelan hanbat gaixto. Bego, indarra duenari, azken hitza: diote! Gizarte mailakatu hontan, bego diruari bere bidea eta jaun txapeldunari bere fantesia. Xaharrek xahartuak direla ahantzi beharko dute edo bestelan ixil-ixila leize zilora pulunpatu. Haurrak gosetearekin galdu zuen oihua. Hego Amerikan Indianoak suntsitzer dituzte. Afrikan, Biafrako Ibosak bentzutu dituzte, omen. Viet-Nam, Hego Amerika, Biafra: dena nigar eta garrasia... Gudularien zintzarrotsa, gaur ere atzo bezala, ito da itsasoen marruman!

Presan iragan da, egun, Mirentxu.

«Kaixo...»

«Ongi Mirentxu azken aldiz gero?»

Bere maitasun geldia burrustan barreiatu dit besarkada tinki eta luze batean. Bere bularren beroak goxatzen dizkit oraino gorputz-gune minberatuenak.

«Hori zuretzat...»

Bere irri beratzarekin ekarri dizkit Euskal-Herriko kasetak. Etxeko berriak atzo hartu zituen. Guziak ongi direla, erran dit. Jokin uztailan ezkontzekoa dela. Etzi, berriz etorriko da eta behar den astia, orduañ, hartuko duela enekin mintzatzeko. Serioski...

Ez zara gudurako egina, Mirentxu. Gizonkien arteko erokeria eta menskeria baizik ez da gertatzen zaiguna. Elkar xahutzen eta suntsitzen ari gara. Gauaz ibiltzeaz begiak gorri-hartu zaizkitzu eta ez zara konturatzen gure jo-kolpeak lanjerosak direla. Geure jite hezgaitzak ez gaitu pausuan uzten etsai norbait aztaparretan harrapatu arte. Geure aiurri bortitzak ez gaitu laxatzen geure ingurukoei tinkaldi bat ona eman arte. Orduan, nagusi atera den aberearen antzera, botzez daldaratzen gara sudur ziloak inarrosiz. Halako nagusitza bat lortu bagenu bezala! Halako boteretza bat negurtu begenu bezala! Aitzaki asko darabilagu gutartean geure elkar ezin-ikusiak arrazoinatzeko eta geure zapalkuntzak baiezteko. Gure aitzaki bihurrietan eta gure arrazoinamendu makurretan nahasten zara, Mirentxu, eta burtxoratzen. Zerk zaitu bada guri jarraikitsera bultatzen?

Euskal-Herriko berriak irakurtzean, sekulan ez bezala okaztatu naiz: beste

egitekorik ez balitz bezala, gure idazle batzu elkarren artean samurtu dira alfabetoako hizki baten estakuruan! Harritu naiz ez bainuen uste hizki batek holako arrakasta izan zezakeenik holako eztaibada bat pizteko. Etxepare eta Axularek ez dukete guti irri egin! Euskara jalgi hadi plazara, jalgi hadi dantzara, jalgi hadi mundura... Uste dut bestalde, zeruaren beste puntan, bere kopeta zimurrarekin Larramendy jesuita ez zitekeela arralleria gose! Jalgi hadi dantzara!

Zeure gorputz gordinarekin plazarako egina zara, Mirentxu, eta ez arte-karrika horietan etsitua ibiltzeaz higatzeko. Eguzkia bera ebatsi digute eta ez dakigu zer diren kanpotikako beroaldiak. Gauarekin nahasten da zure larruaren kolorea eta galtzen ditu argi-dirdira kontrasteak. Baina zeure bihotzean gordetzen dizkiguzu eguzki dirdai beroak eta min duzu bihotzean gure zalaparta eroak ikustean. Nola kabala biziata bere hartara beti itzultzen den, halaber erortzen baigara geure arteko aharra eta kolpeetan. Aharra gorrian baizik laket ez bagine bezala. Azpi-jokoetan baizik ez balitz bezala gure trebetasuna eta furfurua. Jalgi zaitez dantzara. Zure besarkada tinki eta luzean bildu nahi dut eguzki dirdaien beroa eta ezagutu nahi dut bizitzaren zorion irekia. Etzi etorriko zara. Luze izanen da zugandik berex atxikiko nauen epe hau. Xoilki irudimenean trebeskatuko eta koskatuko zaizkidan amets iheskorak. Amets ontzi minbera, burua zozotua, ibiliko naiz automato baten antzera. Esku emanen diet lagunei eta irripar arruntenarekin segituko dizkiet bar batetan errepikatzen " diren solasak. Buruak zart egin ez dezan eta zainak ez daitezen jauz, lagungoak eguneroko beroaldia behar baitu sentitu, edatearen erritua ere beteko dut ardura eta sineste izpirik gabe. Ihesbideak trenkatzean eta espantuak xuhurtzean bakoitzak badakike, orduan, etxera joateko tenorea dela. Eta gauean itzaliko gara bederazka. Baina etzi etorriko zara eta, loak hartua, gutizia ororen pizuan eroriko nitzaizu lur hotzean. Luze izango da eta beldur naiz... Zure begi erneekin maitasunerako egina zara, Mirentxu, eta ez ilunpe horietan haztamuka argia ezin urratuz zeure bizitza endurtzeko. Zure eskuak artexak dira lili buketak muntatzen, koloreak nahasten, musikak jotzen, aurpegiak laztantzen: bizitzaren daldara hunkigarria zure gorputz gordinaren zalutasunean! Zeure erhi ibiltze arinetan emozioa sentimenkiro elestatzen duzularik, bizitzaren zirrara zeure ezpain epelaren bustian amultsuki dakarkiguzu. Baina, zeure begi xorrotxekin gure asmo eta xede ergelak baino urrunago behatzen duzularik eta sumatzen bizitzaren hedadura mugagabea, izitzen naiz ikusiz zugandik berexten nauen distantzia. «...Bizitza lili hauien kokotsean da, irauli berria den lur hezean, zuhaitzen lorete eta fruitutzeetan, haizearen zirimola huxtularian, txorien ttiutta alaietan, izarren dirdai keinularietan... bizitza orotan nabari da eta zoriona hor gaindi zer orok dakarkigu distantzia guziak gaituz... zoriona ez dakarkigu baitezpada ustegabea nonbaiteko eremu batean zerratu dukegun zerbait edo norbaitetik, baizik eta lehenik, esku ahurrean bizitzaren irekiduran loreten eta fruitutzen zaigunetik... zorionak ez du distantziarik, zuk ez baldin badiozu ezartzen bederen...», erran zenidan behin... Baina etzi etorriko zara eta zugandik berexten nauen distantzia hau luzeegi deritzait, eta lotsa naiz...

(Segidarik ez zen. Bakarrik bilkura baten programazioa, honela:

1/ Marxen «Lan alokatua eta Kapitala» 3 eta 4garren kapituluak.

2/ Klase borroka gure herrian.

3/ Kultura giroa gure herrian: atzo eta gaur.

N.B. Elkarrekin ikusi beharko dugu nola hobeki organiza geure lana; informazioak nola bil eta aztertu. Geure lanak nori eta nola helaraz ditzazkegun...)

Purro usain freskoak betetzen zuen gela guzia. Txomin ohe buruan jarria zen. Ohartu nintzen purroa hila zitzaiola eta hautsa eskuineko azpi gainean barreiatua. Ni irakurtzetik gelditzean, supizteko bat hartu zuen: krak eta bafaka, kokotza biribilkaturik, ezpain xokoa luzatuz, purro ondarkina piztu zuen...

—«Au... beharko diagu abiatu...» erran zidan, egiteko bat urentu ondoan erraten den bezala.

—«Lanera goizik behar duka joan?»

—«Oh... bestorduz bezalatsu... Asnières-en ari gaituk bultaxka honetan... xantierra urrunska diagu ba... boo... lehentxago abiatuz, han gaituk ba tenoreko...»

Zango muturrari hazka, zirritutik kanpokaldera begira, purroa goxatzen segitu zuen Txominek. Eta nik, Migelen kaierreko orri zuriak itzulikatzen, jestu banal batean, ari nintzela, idazti hau ere aurkitu nuen: *Euskal Herriko kaseta bati igortzeko*.

Egun, sekulan ez bezala, neure lurraren ikaraz izitu naiz: turismoarentzat bide berriak mendi lepoetan urratu dituzte eta bizitza gure ibarretatik ihes joan da.

Otxagabian ezkaratzak ederki apainduak dira, baina lauza eta harri pikatuen azpian galdu dira Euskaldunen aztarnak: emazte xahar bat, oso amutua, hor gaindi aurkitu nuen behin eta, espaiñolez, aipatu zaizkidan lehengo denborak... Baina Nafarroako historiaren hari euskaldunak trenkatuak zitzaizkion aspaldian gaixoari!

Noiz ote, Ondarroako edo Lekeitioko edo Bermeoko arrantzaleen oihugarrasiek inarrosiko dituzte Larrañeko lepoa eta Iratiko oihana?

Lur berriak egin omen dira Iparraldean: Amikuze, Oztibarre, Garazi, Hazparneko eskualdeetan... Esperientziak ere ugaritu omen dira laborantzako arak aldatzeko. Noiz, gure mendi larrutuak berriz berdetuko dira haritz, pago, ametz eta gaztain ondoez?

Nafarroa hegoaldean, Iruñako inguru nasaietan, lanbide berriak atera dituzte, baina induztia indar berri horrek gure mendien errekak eta ordokiak ez ditu orainokoan berotu. Espaiñoleria nagusitu ote da gure Nafarroan?

Intzirika ari da bulta honetan gure lurra. Pettirik zion, arrazoinekin: «Bakoitza bere hartan bereaz hartzeko orde, guziek elkarrekin ikusi behar genikek, gaur nolako arak entseiatzen eta frogatzen ahal genitzakeegun geure mozkinak eragintzeko ala bihietan, ala hazkuntzan, ala baratze-karietan... Batzu besteen kontra edo berdin kaltetan ibilki baldin bagara eta bakoitza berea zaintzeari, geure lur puskatu hau,

goiz edo berant, kanpotik etorriek pezaka erosiko diaukuie... Baina, ez zekiat, ez garenetz sobera herbailak eta herrebesak, gu, Euskaldunok? Egia erran, gazte batzu saiatu omen dituk elkar-laborantza bat lantatzeari Garazin, Oztibarren, Amikuzen eta, entzun dutanaz, harreman batzu ere abiatu omen ditie Nafarroako laborariekin... Induztria eta laborantzak behar likeie lauzkatu, nere irudiko bederen, Euskal-Herria indartzeko: ez duka uste?»

Geure plazetan, geure herrietan, geure lurretan herioa utziko ote dugu nagusitzera?

Gure lurraren ikaraz daldaratzen naiz. Gure lurraren izerdiaz bustitzen naiz. Gure lurraren intziriak ixiltzer dira mendi tontorretan... Gure lurra hasi baita ernaltzen, bizi berri baten mugimenduez hasi baita higitzen, odol bero baten bustiaz trenpatzen: geure lurra datorkigu bizitzeko beharrezkoa zaigun ekilibrioa segurtatzera. Maite zaitut neure lurra, lur mehe eta gizona, lur heze eta beroa. Ahurrean pollikiño hartzen zaitut, neure lurra, eta musu ematen diet dakarzkidatzun landare eta bihie... Maite zaitut neure lurra, neure bizitzaren landarea eta bihia!

Zeren geure lurretik bizi nahi dugu geure lurrean geure erroak sakon eginik. Lurra diruarentzat saltzen delarik geure erroak galtzen ditugu. Eta diruak laster bakarrik utziko gaitu: lurrik ez dukegu, ez eta errorik. Lurrik ez duenak daki zer den landa gunerik ez izatea. Erroak landatu nahi lituzkeenak daki zer den lur poxi baten bila ibiltzea. Diruak ez digu baitezpada segurtatzen beharrezkoa zaigun landa gunea. Geure lurra ez dugu salduko besten deskantsu leku uzteko. Ez dugu salduko geure erroen gunea. Gure erroen lurra hasi da ernaltzearen izerdiaz bustitzen. Geure lur ernariaren izerdiaz hasi gara bustitzen. Eta ez gara saltzekoak!

Maite zaitut neure lurra, lur mardo eta idorra, lur bustia eta zukua. Gorputza zabal-zabala etzaten naizenean, gutzizatzen zaitut zure erraietako indarki ixiletan: neure erroak barna eta sendo nahi nituzke zure erraietan landatuak. Nahi bainuke bizitzara sortu belar eta zuhaitz arteetan. Nahi bainuke bizitzari kantatu lore eta txoriekin, zeruan dabilten lanoei begira. Maite zaitut neure lurra, neure lur basa eta hezia, neure erroen lur emankorra, nigarrez eta irriz ari naizenean, eguzkiak itsutua; zure sabel mardo eta idorrean etzana, izarrei elestan eta kantuz ari naizenean. Gure lurraren erraietan landatzen naiz eta neure erroak lasaitzen ditut gaua eta eguna nahastean, iluna eta argia nahastean, eta bizi zirrara sendo batek gainditzen nau euriak hurrupatzean, haizeak jabetzean, ekaitzak hautematean. Gauak eta egunak berdinean dirauten lurpeetan, mirets ere dezaket adi-adi uren sinfonia etengabea... Maite zaitut neure lurra, neure lur alaia eta minbera, neure bizitzaren erroa!

(Parisen 1970.ko irailaren 10)

ÈZ zen beste izkiriorik... Beste puskilerin artean, Migelen kaierra balisan gorde nuen.

Txominek bere zigarro punta hautsontzian porroskatu zuen, ongi hila zuela segurtatu arte.

Azken whisky zorta edan genuen. Balisa hartu nuen eta atea gakotu. Jautsi ginen. Konzierjari itzuli genion gelako gakoa eta kaleratu ginen.

Asteazken arratsa zen. Zazpi orenak inguru hori. Lanetik etorria, doi-doia ikuzia eta aldatua nintzen. Jateko poxi bat prestatu gei nuen. Norbaitek atea jo zuen eta ireki nion.

Nigar hipaka Mirentxu aurkitu nuen, sartzera ezin menturatuz. Laneko arrokekin zen, biloak deseginak, begitarte tiran. Zerbait berri gaixtoz heldu zitzaidala, berehala pentsatu nuen. Lepotik hartu nuen eta sararazi. Ohe gainean jararazi nuen. Utzi nuen lasai nigar egin zezan. Ontzi zikin batzu bainintuen garbitzeko utziak, joan nintzen urketa. Etorri nintzaneko, Mirentxu kalmatua zen.

— Zer agitzen zaitzu, Miren?

— Ez zenuen jakin...?

— Zer hori?

— Duela zenbait egun Migel ospitalera ereman zuten pneumonia batekin...

— Ez dugu fitsik jakin... Bazen hamar bat egun ez genuela elkar ikusi, alta bekan gertatu zaigu hoin luzaz elkar ez ikustea... Txominek ere ez zuen deus jakingo, bestelan abisatuko ninduen abian... Eta gaizkiago ote da?

— Goizeko bi orenetan hil zen anbolia batekin...

Berriz nigarrez hasi zen Mirentxu.

Harritu nintzen, sekulakotz harritu. Ezin nuen sinets geure Migel holaxet hil zitzaidala. Ezin nuen sinets.

Mirentxuk erran zidan Migelen gorputza morga ezarri zutela eta biharamunean, arratsaldeko hirur orenetan, ehortzi zutela.

Kafea beroarazi nuen.

Kafea buruz-buru edan genuen.

Txominekin joanen nintzen Migelek utzi puskak biltzera.

«Hitzematen dizut, Miren.»